# Bestelako Xedapenak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 3723

AGINDUA, 2009ko ekainaren 24koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, 2009-2010 ikasturterako Ikertzaileen Prestakuntza eta Hobekuntza Programetarako laguntzak berritzea eta laguntza berriak ematea arautu eta horietarako dei egiten duena.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak badaki zientziaren eta teknologiaren euskal sistemako giza baliabideak indartzen lagunduko duten programen sustapenean aktiboki parte hartzea dagokiola. Hori horrela, zenbait jarduera gauzatu ditu azken urteotan, eta horien artean daude pertsonal ikertzailearen prestakuntzarako eta hobekuntzarako laguntzak.

Ikerketako giza baliabideak sustatzeko politikan kokatzen da programa hau, 2010 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren esparruan, eta beren lanbide-jarduera ikerketarantz bideratu nahi duten tituludunen prestakuntza espezifikoa sustatzea du helburu. Hori guztia Ikertzailearen Europako Gutunari eta Ikertzaileen Kontratazioko Jokabide Kodeari buruzko Europako Erkidegoko Batzordearen Gomendioarekin bat etorriz (EEE/2005/251/CE).

Deialdi hau administrazio publikoetako diru-laguntzen jarduna arautzen duten publizitate-, lehia- eta objektibitate-printzipioen arabera ebatziko da, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak ezartzen duenaren arabera (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretu bidez onartua), eta Agindu honetan ezarritako irizpideen arabera banatuko dira erabilgarri dauden diru-baliabideak.

Era berean, 4/2009 Dekretuak, maiatzaren 8koak, Lehendakariarenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak, eta horien egitekoak eta jardute-eremuak finkatzen dituenak, Sail honi ematen dizkio zientzia-politikaren eta ikerketa teorikoaren eta aplikatuaren sustapenaren eta koordinazioaren gaietako eskumenak.

Horiek horrela, 19/2008 Legea onartuta, abenduaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2009 ekitaldiko Aurrekontu Orokorrak onetsi dituena

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 3723

ORDEN de 24 de junio de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se regulan y convocan las ayudas nuevas y renovaciones para los Programas de Formación y Perfeccionamiento de Personal Investigador correspondientes al curso 2009-2010.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación, consciente de la participación activa que le corresponde como impulsor de programas que contribuyan a reforzar los recursos humanos en el sistema vasco de ciencia y tecnología, viene desarrollando desde hace años una serie de actuaciones entre las que se encuentran las ayudas de formación y perfeccionamiento de personal investigador.

Este programa se integra en la política de potenciación de los recursos humanos en investigación en el marco del Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2010, y tiene como propósito promover la formación específica para aquellas personas tituladas superiores que deseen orientar su actividad profesional hacia la investigación. Todo ello de acuerdo con la Recomendación de la Comisión de la Comunidad Europea relativa a la Carta Europea del Investigador y al Código de Conducta para la Contratación de Investigadores (EEE/2005/251/CE).

La presente convocatoria se resolverá conforme a los principios de publicidad, concurrencia y objetividad que rigen la actividad subvencional de las Administraciones Públicas, en los términos establecidos en el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, aplicándose los recursos económicos disponibles con arreglo a los criterios establecidos en la presente Orden.

Asimismo, el Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, atribuye a este Departamento competencias en materia de política científica, impulso y coordinación de la investigación teórica y aplicada.

En su virtud, habiéndose aprobado la Ley 19/2008, de 29 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2009.

EBATZI DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

***1. artikulua.***– Xedea.

Agindu honen xedea da 2009-2010 ikasturterako Pertsonal Ikertzailearen Prestakuntza eta Hobekuntza Programetarako laguntza berriak eta berrituak arautzea eta horietarako dei egitea, honako jarduera-ildo hauen bitartez:

a) Prestakuntza:

1.– AE modalitatea: Espainiako ezarpen-zentroetan pertsonal ikertzailea prestatzeko doktoratu aurreko laguntzen programa.

2.– AK modalitatea: Atzerriko ezarpen-zentroetan pertsonal ikertzailea prestatzeko doktoratu aurreko laguntzen programa.

3.– B modalitatea: Proiektuei atxikitako pertsonal ikertzailea prestatzeko doktoratu aurreko laguntzen programa.

b) Hobekuntza:

DK modalitatea: Atzerrian pertsonal ikertzailea hobetzeko doktoratu ondoko laguntzen programa.

***2. artikulua.***– Onuradunak.

1.– Beka-aldian, onuraduna bai prestatzen ari den Ikertzailea bai hobekuntza-fasean dagoen ikertzailea izango da.

2.– Kontratu-aldian, laguntzen onuradun izatera pasako dira ikertzaileak prestatzeko ezarpen-zentroak.

3.– Laguntza berriak eskatzen dituzten pertsonak:

a) Agindu honetan araututako laguntzen onuradun izan ahalko dute unibertsitateko titulua duten eta, eskaerak aurkezteko epearen amaierako egunean, dagokion programan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten pertsonek.

b) Ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko laguntza-programetako laguntzak lehenengo aldiz eskatzen dituztenek eskabide bakarra eskatu ahal izango dute programa honetako modalitate guztietarako. Nolanahi ere, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak eskaera bakarra onartuko du eskatzaileko.

c) Eskatzaile bakoitzak arlo bakarra aukeratuko du eta horren arabera ebaluatuko da. Proiektuei atxikitako pertsonal ikertzailea prestatzeko doktoratu aurreko laguntzen programan (B modalitatea) ez da arlo bat aukeratuko, proiektu bat baizik.

d) Edonola ere, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak, interesdunari hala jakinarazi ondoren, edozein eskaeraren programa, modalitatea, aldatu ahal izango du ez bazaio eskatzailearen ikasketa- eta ikerketa-profilari egokitzen, bai eta aukeratutako arloa ere, betiere, eska-

RESUELVO:

CAPÍTULO I
DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 1***.– Objeto.

El objeto de la presente Orden es regular y convocar las ayudas nuevas y renovaciones para los Programas de Formación y Perfeccionamiento de Personal Investigador correspondientes al curso 2009-2010, a través de las siguientes líneas de actuación:

a) Formación:

1.– Modalidad AE: Programa de ayudas predoctorales para la formación de personal investigador en centros de aplicación en España.

2.– Modalidad AK: Programa de ayudas predoctorales para la formación de personal investigador en centros de aplicación en el extranjero.

3.– Modalidad B: Programa de ayudas predoctorales para la formación de personal investigador asociadas a proyectos.

b) Perfeccionamiento:

Modalidad DK: Programa de ayudas posdoctorales para el perfeccionamiento del personal investigador en el extranjero.

***Artículo 2***.– Personas beneficiarias.

1.– En la fase de beca, la persona beneficiaria será el personal investigador en formación y de perfeccionamiento solicitante de la ayuda.

2.– En la fase de contrato, los centros de aplicación del personal investigador en formación serán las personas beneficiarias de las ayudas.

3.– Las personas beneficiarias de ayudas nuevas:

a) Podrán ser personas beneficiarias de las ayudas reguladas en la presente Orden las personas tituladas universitarias que, en la fecha de cierre del plazo de presentación de solicitudes, cumplan todos los requisitos que se establecen en el correspondiente programa.

b) Las personas solicitantes de nuevas ayudas de los programas de ayudas predoctorales para la formación sólo podrán presentar una única solicitud en el conjunto de las modalidades de ese programa. En todo caso, la Dirección de Política Científica sólo admitirá una solicitud por cada persona solicitante.

c) Cada persona solicitante deberá elegir una única área por la que desee ser evaluada. En el programa de ayudas predoctorales para la formación de personal investigador asociadas a proyectos (modalidad B) no se elegirá un área sino un proyecto.

d) En todo caso, la Dirección de Política Científica está facultada para cambiar, previa comunicación a la persona interesada, el programa, la modalidad de cualquier solicitud que no se ajuste al perfil académico e investigador de la persona solicitante y el área elegida,

eraren ezaugarriek hala aholkatzen badute edo kasuan kasuko Berariazko Aholku Batzordeak hala gomendatzen badu.

4.– Pertsona batek modalitate batean laguntza lortzen badu, ezingo du modalitatez aldatzea eskatu.

***3. artikulua***.– Diru-baliabideak.

1.– 1. artikuluan deitutako programen zenbateko osoa 10.037.300,00 eurokoa da, 2009. urteko aurrekontu-jarduera eta 2010. urterako konpromiso-kredituak aintzat hartuta, eta honako zenbateko hau dagokio programa bakoitzari:

a) Laguntzak berritzea: 6.347.743,59 euro.

b) Pertsonal ikertzailea prestatzeko doktoratu aurreko laguntzen programa, laguntza berriak: 2.277.877,16 euro.

c) Proiektuei atxikitako doktoratu aurreko laguntzen programa, laguntza berriak: 29.766,80 euro.

d) Atzerrian pertsonal ikertzailea hobetzeko doktoratu ondoko laguntzen programa, laguntza berriak: 880.047,45 euro.

Zenbateko osoaren % 5, matrikulatze-gastuak eta doktoregoa eskuratzeagatik laguntza gehigarria ordaintzeko gordeko da.

2.– Zientzia Politikarako Zuzendaritzak deialdiaren zenbateko osoa programa eta arlo bakoitzean modu arrazoituan banatu ahal izango du, kalitate-irizpideak eta aurkeztutako eskaeren kopurua eta aurrekontu-mugak kontuan hartuta. Banaketa hori ebaluazio batzordeek Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari aurkeztutako laguntzen esleipen-proposamenaren aktan jasoko da.

3.– Artikulu honetan jasotako zenbateko osoa aldatu ahal izango da, eskatutako laguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta, eta horien ebazpenaren aurretik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren beste laguntza-programa batzuk gauzatu ondoren agortu gabe geratu diren aurrekontu-baliabideen arabera. Inguruabar hori argitara emango da Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen ebazpen baten bitartez.

4.– Lehiaketa-teknika aplikatzen ez den egoeretan, laguntzetarako jasotako kreditua agortzen bada, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak administrazio-ebazpen bat eman eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko du, egoera horren berri emateko. Ebazpenean adierazi egingo da zein egunetan agortu den kreditua, eta ez da egun horretatik aurrera jasotako eskabiderik onartuko.

siempre y cuando las características de la solicitud así lo aconsejen o medie la recomendación del Comité Asesor Específico correspondiente.

4.– Una vez de obtenida la ayuda por una modalidad no se podrá solicitar su cambio a otra modalidad distinta.

***Artículo 3***.– Recursos económicos.

1.– El importe total de los programas convocados en el artículo 1, considerando el ejercicio presupuestario del año 2009 y los créditos de compromiso para el año 2010, asciende a 10.037.300,00 euros, siendo el importe correspondiente a cada programa el siguiente:

a) Renovación de ayudas: 6.347.743,59 euros.

b) Programa de ayudas predoctorales para la formación de personal investigador, nuevas ayudas: 2.277.877,16 euros.

c) Programa de ayudas predoctorales asociadas a proyectos, nuevas ayudas: 29.766,80 euros.

d) Programa de ayudas posdoctorales en el extranjero para el perfeccionamiento del personal investigador, nuevas ayudas: 880.047,45 euros.

El 5% de la cantidad global se reservará para el abono de los gastos de matriculación y la ayuda adicional por obtención del doctorado.

2.– La Dirección de Política Científica estará facultada para distribuir motivadamente el importe global de la convocatoria entre cada uno de los programas y áreas en base a criterios de calidad y número de las solicitudes presentadas y a las limitaciones presupuestarias, recogiéndose esta distribución en el acta de Propuesta de Adjudicación de ayudas elevada al Viceconsejero de Universidades e Investigación, por parte de las Comisiones Evaluadoras.

3.– El importe global consignado en este artículo podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución de la Viceconsejera de Administración y Servicios.

4.– En los supuestos en los que no se aplique la técnica concursal, si se agotara el crédito consignado para la concesión de las ayudas, al objeto de dar publicidad de esta circunstancia, por el Viceconsejero de Universidades e Investigación se emitirá resolución administrativa en la que se señalará la fecha en que se ha producido el agotamiento del citado crédito, publicándose la misma en el Boletín Oficial del País Vasco, no admitiéndose solicitud alguna que se presentase a partir de tal momento.

Gainera, arrazoi bera dela-eta, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen bitartez, ukatu egingo dira aurkeztu eta tramitazio-bidean dauden eskabideak.

***4. artikulua.***– AE, AK eta DK modalitateetan aukeran dauden arloak, eta B modalitatean aukeran dauden proiektuak.

1.– AE, AK eta DK modalitateetan honako arlo hauen artean aukeratu ahal izango da:

1. arloa: Biologia Molekularra eta Zelularra eta Genetika.

1. arloa (bis): Biofisika, Biokimika, Bioteknologia, Mikrobiologia, Immunologia eta Birologia.

2. arloa: Animalien Biologia, Landareen Biologia, Biologia aplikatua, Ingurumena eta Antropologia Fisikoa, Ekologia.

2. arloa (bis): Nekazaritzako Zientziak, Albaitaritza, Zooteknia, Arrantzako Teknikak, Baso Ustiapenak.

3. arloa: Osasun Zientziak, Giza Biologia, Zientzia Klinikoak, Epidemiologia, Medikuntzako eta Kirurgiako Espezialitateak (Psikiatria salbu), Farmakologia, Giza Fisiologia, Prebentzio Medikuntza, Osasun Publikoa.

3. arloa (bis): Elikagaien Teknologia, Bromatologia eta Nutrizioaren Zientziak.

4. arloa: Matematikak eta Estatistika.

5. arloa: Zientzia Fisikoak, Astrofisika, Astronomia eta Elektronika.

6. arloa: Kimika (Biokimika salbu) eta Ingeniaritza Kimikoa.

7. arloa: Teknologiak (Bioteknologia eta Elikagaien Teknologia salbu) eta Ingeniaritzak (Ingeniaritza Kimikoa salbu).

8. arloa: Geologia, Paleontologia.

9. arloa: Informatika.

10. arloa: Filosofia, Logika, Etika, Antropologia Filosofikoa eta Filosofiaren Historia.

11. arloa: Historia (Artearen Historia eta Filosofiaren Historia salbu) eta Arkeologia.

11. arloa (bis): Geografia Fisikoa eta Giza Geografia.

12. arloa: Arte Ederrak, Artearen Historia, Musikologia, Arte Ederren Teoria, Analisia eta Kritika, Arkitektura.

13. arloa: Hizkuntza, Literatura, Hizkuntzalaritza, Filologiak, Literaturaren Teoria, Analisia eta Kritika.

14. arloa: Zuzenbidea, Zientzia Juridikoak eta Nazioarteko Harremanak.

15. arloa: Ekonomia, Ekonometria, Teoria Ekonomikoa, Sistema Ekonomikoak.

Además, las solicitudes presentadas y en tramitación, y que no hubieran podido ser atendidas por agotamiento de la dotación presupuestaria asignada, serán denegadas, por tal motivo, mediante Resolución del Viceconsejero de Universidades e Investigación.

***Artículo 4.***– Áreas a elegir en las modalidades AE, AK y DK y proyectos a elegir en la modalidad B.

1.– Las Áreas a elegir en las modalidades AE, AK y DK serán las siguientes:

Área 1: Biología Molecular y Celular y Genética.

Área 1(bis): Biofísica, Bioquímica, Biotecnología, Microbiología, Inmunología y Virología.

Área 2: Biología Animal, Biología Vegetal, Biología aplicada, Medio Ambiente y Antropología Física, Ecología.

Área 2 (bis): Ciencias Agropecuarias, Veterinaria, Zootecnia, Técnicas Pesqueras, Aprovechamientos Forestales.

Área 3: Ciencias de la Salud, Biología Humana, Ciencias Clínicas, Epidemiología, Especialidades Médicas y Quirúrgicas (excepto Psiquiatría), Farmacología, Fisiología Humana, Medicina Preventiva, Salud Pública.

Área 3 (bis): Tecnología de los Alimentos, Bromatología y Ciencias de la Nutrición.

Área 4: Matemáticas y Estadística.

Área 5: Ciencias Físicas, Astrofísica, Astronomía y Electrónica.

Área 6: Química (excepto Bioquímica) e Ingeniería Química.

Área 7: Tecnologías (excepto Biotecnología y Tecnología de los Alimentos) e Ingenierías (excepto Ingeniería Química).

Área 8: Geología, Paleontología.

Área 9: Informática.

Área 10: Filosofía, Lógica, Ética, Antropología Filosófica e Historia de la Filosofía.

Área 11: Historia (excepto Historia del Arte e Historia de la Filosofía) y Arqueología.

Área 11 (bis): Geografía Física y Humana.

Área 12: Bellas Artes, Historia del Arte, Musicología, Teoría, Análisis y Crítica de Bellas Artes, Arquitectura.

Área 13: Lengua, Literatura, Lingüística, Filologías, Teoría, Análisis y Crítica Literaria.

Área 14: Derecho, Ciencias Jurídicas y Relaciones Internacionales.

Área 15: Economía, Econometría, Teoría Económica, Sistemas Económicos.

16. arloa: Soziologia, Zientzia Politikoak eta Antropologia Kulturala.

17. arloa: Kazetaritza eta Informazioaren Zientziak.

18. arloa: Psikologia, Psikopatologia, Psikiatria, Pedagogia eta Didaktika.

2.– Oinarrizko Ikerketaren eta/edo Ikerketa Aplikatuaren inguruko proiektuak, Lankidetzako Proiektuak eta Giza eta Gizarte Zientzietako Proiektuak gauzatzeko laguntzen programaren bitartez Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak finantzatu dituen ikerketa-proiektuak aukeratu ahal izango dira B modalitatean.

***5. artikulua.***– Ezarpen-zentroak.

Ezarpen-zentroak Espainiako edo atzerriko unibertsitate edo ikerketa-zentro publikoak edo pribatuak izango dira, betiere, deialdiko programa eta modalitate bakoitzeko espezialitateen arabera:

a) Prestakuntza:

1.– AE modalitatea: Espainiako ezarpen-zentroak.

2.– AK modalitatea: Atzerriko ezarpen-zentroak.

3.– B modalitatea: Oinarrizko Ikerketaren eta/edo Ikerketa Aplikatuaren inguruko proiektuak, Lankidetzako Proiektuak eta Giza eta Gizarte Zientzietako Proiektuak gauzatzeko laguntzen onuradun diren ezarpen-zentroak.

b) Hobekuntza:

DK modalitatea: Atzerriko ezarpen-zentroak, eskatzaileak bere doktoratu aurreko prestakuntza jaso duen zentroa izan ezik.

***6. artikulua***.– Proiektuen zuzendariak.

Proiektuaren zuzendari izan ahalko du hori gauzatzen den bitartean ezarpen-zentroarekiko lotura duen edozein doktorek. Proiektuaren zuzendariak, zuzendarikideak edo, hala badagokio, tutoreak, ezingo du eskaera batean baino gehiagotan azaldu deialdi honetako modalitateetan. Era berean, proiektuaren zuzendaria edo zuzendarikidea laguntza eman ondoren aukeratzen bada ere, horiek ezingo dute deialdi bereko onuradun bat baino gehiagoren ardura hartu.

II. KAPITULUA
PERTSONAL IKERTZAILEA PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO LAGUNTZEN PROGRAMA:
AE ETA AK MODALITATEAK

***7. artikulua.***– Programaren xedea.

Programa honen xedea da doktorego-programa baten barruan doktorego-tesia egin nahi duten unibertsitateko tituludunen prestakuntza sustatzea, ikertzaileak

Área 16: Sociología, Ciencias Políticas y Antropología Cultural.

Área 17: Periodismo y Ciencias de la Información.

Área 18: Psicología, Psicopatología, Psiquiatría, Pedagogía y Didáctica.

2.– Los proyectos a elegir en la modalidad B serán aquellos proyectos de investigación que hayan sido financiados por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación a través del programa de ayudas para la realización de proyectos de investigación básica y/o aplicada, proyectos en cooperación y proyectos en humanidades y ciencias sociales.

***Artículo 5***.– Centros de aplicación.

Los centros de aplicación podrán ser universidades o centros de investigación públicos o privados en España o en el extranjero, todo ello según las especialidades de cada programa y modalidad convocado:

a) Formación:

1.– Modalidad AE: Centros de aplicación en España.

2.– Modalidad AK: Centros de aplicación en el extranjero.

3.– Modalidad B: Centros de aplicación beneficiarios de las ayudas para la realización de proyectos de investigación básica y/o aplicada, proyectos en cooperación y proyectos en humanidades y ciencias sociales.

b) Perfeccionamiento:

Modalidad DK: Centros de aplicación en el extranjero distintos a aquél en el que la persona solicitante haya realizado su formación predoctoral.

***Artículo 6***.– Personas directoras de los proyectos.

La Dirección del proyecto podrá asumirla cualquier persona con el título que acredite las enseñanzas de doctorado que tenga vinculación con el centro de aplicación durante el periodo de su ejecución. Ninguna persona que asuma la Dirección o Codirección del proyecto o, en su caso, Tutoría, podrá figurar en más de una solicitud en el conjunto de las modalidades de esta convocatoria. Asimismo, si la asignación de la Dirección o Codirección del proyecto se realiza tras la concesión de la ayuda ninguna podrá serlo de más de una persona beneficiaria de la misma convocatoria.

CAPÍTULO II
PROGRAMA DE AYUDAS PREDOCTORALES PARA FORMACION DE PERSONAL INVESTIGADOR:
MODALIDADES AE Y AK

***Artículo 7***.– Objeto del programa.

El objeto de este programa es promover la formación de personas tituladas universitarias que deseen realizar una tesis doctoral, dentro de un programa de doctora-

prestatzeko laguntzak emanez, Agindu honetan eta 63/2006 Errege Dekretuan, urtarrilaren 27koan, Prestatzen ari diren Ikertzaileen Estatutua (aurrerantzean, EPIF) onartzen duenean ezarritakoari jarraiki, aplikatzekoa den egoeran.

***8. artikulua.***– Laguntzen ezaugarriak.

1.– AE modalitatean emango den laguntzak honako ezaugarri hauek izango ditu:

1.1.– Laguntzaren iraupena.– Guztira 48 hilabeteko laguntza emango da; horiek 12 hilabeteko lau denbora-alditan banatuko dira, laguntza ematen den egunetik kontatzen hasita, 17. artikuluko 2.2. ataleko a) idatzzatian ezarritakoari jarraiki.

48 hilabeteen denbora-antolaketa bi denbora-alditan bereiztuko da:

a) Beka-aldia.– 24 hilabeteko iraupena izango du, eta laguntzak, 12 hilabeteko bi denbora-alditan banatuta, beka baten ezaugarri berak izango ditu.

Ikertzaileek debora-tarte horretan eskuratu beharko dute Ikasketa Aurreratuen Diploma (aurrerantzean, DEA) edo, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitutako irakaskuntzen egitura berriarekin bat etorriz, haren ordezko administrazio-agiria.

Aldi baterako ezintasunak (gaixotasuna edo istripua), haurdunaldiko arriskuak edo behar bezala egiaztatutako amatasunagatiko edo aitatasunagatiko atsedenak beka denbora batez eteteko eskubidea ekarriko dute.

b) Kontratu-aldia.– Beka-aldiko 24 hilabeteak amaitutakoan, ezarpen-zentroek praktikaldiko kontratua formalizatuko dute bertan prestatu diren ikertzaileekin, EPIFeko 8. artikuluak ezarritakoari jarraiki.

Denbora-tarte honek, beka-aldia amaitu eta ondorengo 24 hilabetez iraungo du gehienez.

Langileen Estatutuko Testu Bategineko, martxoaren 24an 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartu zeneko, 11.1 artikuluari dagokionez, EPIFeko 8. artikuluan ezarritakoari jarraiki, praktikaldiko kontratua gauzatu ahal izateko unibertsitate-ikasketak amaitu izateko baldintza bete dela ulertuko da DEA edo ordezko ziurtagiria eskuratutako egunean.

Fase honetan, laguntzen onuradun izatera pasako dira programa honetako ikertzaileak prestatzeko Espainiako ezarpen-zentroak. Laguntza emateak ez dakar esleipendunaren eta esleitzailearen arteko inolako kontratu-harremanik. Ezarpen-zentroaren eta kontratu-aldian prestatzen ari diren ikertzaileen arteko harremana EPIFean horri buruz ezarritakoaren araberakoa izango da.

do, mediante la concesión de ayudas para la formación de personal investigador, conforme a lo dispuesto en la presente Orden y en el Real Decreto 63/2006, de 27 de enero, por el que se aprueba el Estatuto del Personal Investigador en Formación (en adelante, EPIF), en el supuesto en que sea de aplicación.

***Artículo 8***.– Características de las ayudas.

1.– La ayuda otorgada en la modalidad AE tendrá las siguientes características:

1.1.– Duración de la ayuda.– Se concederá un total de 48 meses de ayuda, divididos en cuatro periodos de 12 meses a computar desde la fecha de inicio de la ayuda de acuerdo con lo establecido en la letra a) del apartado 2.2 del artículo 17.

La organización temporal de los 48 meses se dividirá en dos periodos diferenciados:

a) Periodo de beca.– Su duración será de 24 meses, y la ayuda, dividida en dos periodos de 12 meses, tendrá las características de una beca.

A la finalización de este periodo, será condición indispensable que el personal investigador esté en posesión del Diploma de Estudios Avanzado (en adelante, DEA) o documento administrativo que lo sustituya de acuerdo con la nueva estructura de enseñanzas adaptada al Espacio Europeo de Educación Superior.

Las situaciones de incapacidad temporal (enfermedad o accidente), riesgo durante el embarazo y descanso por maternidad y paternidad debidamente acreditadas darán derecho a la interrupción temporal de la ayuda.

b) Periodo de contrato.– Completados íntegramente los 24 meses correspondientes al periodo de beca, los centros de aplicación formalizarán con el personal investigador que haya realizado su formación en ellos un contrato de trabajo en prácticas, de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 8 del EPIF.

Este periodo comprenderá como máximo los 24 meses siguientes desde la finalización del periodo de beca.

A los efectos de lo establecido en el artículo 8 del EPIF, en relación con el artículo 11.1 del Texto Refundido del Estatuto de los Trabajadores, aprobado por Real Decreto legislativo 1/1995, de 24 de marzo, el cumplimiento del requisito de terminación de estudios universitarios para acceder al contrato de prácticas se tendrá en cuenta como tal la fecha de la obtención del DEA o documento que lo sustituya.

En esta fase, los centros de aplicación en España del personal investigador en formación en este programa pasarán a ser las personas beneficiarias de las ayudas. La concesión de la ayuda no supondrá en ningún caso relación contractual entre la persona adjudicataria y la adjudicadora. La relación entre el centro de aplicación y el personal investigador en formación en el periodo de contrato será la que se derive de lo dispuesto al respecto en el EPIF.

1.2.– Laguntzaren zenbatekoa, asegurua, matrikulazio-gastuak eta ordaintzeko modua.

a) Beka-aldiko laguntzaren zenbatekoa, asegurua, matrikulazio-gastuak eta ordaintzeko modua.

Laguntzaren zenbatekoa.– Beka-aldian, laguntzaren zenbateko garbia urteko 14.410,00 eurokoa izango da.

Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko enpresa- eta langile-kuotak urte bakoitzari dagozkion kotizazio-tasen eta hobarien arabera kalkulatuko dira, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emango ditu, aurrekontuko ekitaldi bakoitzean programa honetarako erabilgarri dagoen aurrekontuaren kontura.

Asegurua.– EPIFeko lehenengo xedapen gehigarriarekin bat etorriz, beka-prestakuntzan dauden ikertzaileak besteren konturako langiletzat hartuko dira Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean Barneratuta geratzeari dagokionez.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, laguntza ematen duen erakunde den heinean, bere gain hartuko ditu Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean enpresentzat ezarritako eskubideak eta betebeharrak.

Laguntza hasten den datatik aurrera onartuko da Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzea eta, ondorioz, kidetzea eta/edo alta ematea; jarduera amaitzen denean baja emango da.

Matrikulazio-gastuak.– DEA edo baliokidearen jabe izan ez eta laguntza hauen onuradunek, jatorrizko ordainagiria aurkeztuta, eskatu ahal izango dute itzultzeko ikertzaileak prestatzeko programaren ikasketa-tasengatik urte horretan ordaindutako kopuruak; berdin izanik doktorego edo master ofizialeko programa izan. Gehienez, 9.000 euro emango dira onuradun eta programa oso bakoitzeko. Doktorego-ikasketak direnean, gehienez 32 krredituri dagokiona itzuliko da, eta, horietatik, gehienez 20 lehenengo urtekoak izango dira, eta, gehienez 12, bigarrenenekoak; master ofizialeko ikasketak direnean, berriz, gehienez 60 kredituri dagokiona.

Ordaintzeko modua.– Laguntzaren ordainketak hiru hilean behin egingo dira, hiruhilekoaren aurreko hilaren amaiera eta dagokion hiruhilekoaren lehen hilabetearen amaiera artean. Honako hauek izango dira hiruhilekoak: urtarrila-otsaila-martxoa, apirila-maiatza-ekaina, uztaila-abuztua-iraila eta urria-azaroa-abendua.

Matrikulazio-gastuak ordaindu izanaren jatorrizko ziurtagiriak Zientzia Politikako Zuzendaritzan aurkeztu eta gero ordainduko dira matrikulazio-gastuak. Ordainketa zatituak aukeratzen badira, ez da ezer ordainduko egindako ordainketen guztizkoa Zientzia Politikako Zuzendaritzari eskuratu arte.

1.2.– Dotación de la ayuda, seguro, gastos de matriculación y forma de pago.

a) Dotación de la ayuda, seguro, gastos de matriculación y forma de pago del periodo de beca.

Dotación de la ayuda.– Durante el periodo de beca la cuantía de la ayuda será de 14.410,00 euros anuales netos.

La cuota empresarial y de la persona trabajadora a aportar a la Seguridad Social se calculará de acuerdo a los tipos de cotización y bonificaciones correspondientes a cada año y serán aportadas por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación con cargo al presupuesto disponible de este programa en cada ejercicio presupuestario.

Seguro.– De acuerdo con la disposición adicional primera del EPIF, el personal investigador en formación de beca quedará asimilado a persona trabajadora por cuenta ajena, a los efectos de su inclusión en el Régimen General de la Seguridad Social.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, como entidad otorgante de la ayuda, asumirá los derechos y obligaciones establecidos para las empresas en el Régimen General de la Seguridad Social.

La incorporación al Régimen General de la Seguridad Social, con la consiguiente afiliación y/o alta, así como su baja, se hará efectiva a partir de la fecha correspondiente de inicio o cese de la ayuda.

Gastos de matriculación.– Las personas beneficiarias de estas ayudas que no estén en posesión del DEA o equivalente podrán solicitar, mediante la presentación del justificante original de pago, el reembolso de las cantidades abonadas por las tasas académicas de su programa de formación investigadora del año en curso, ya sea de programa de doctorado o de máster oficial, con un máximo de 9.000 euros por persona beneficiaria y programa completo. Cuando se trate de estudios de doctorado, no podrá exceder de 32 créditos por persona beneficiaria, de los cuales un máximo de 20 corresponderá al primer año y un máximo de 12 en el segundo año, o de 60 créditos, cuando se trate de estudios de máster oficial.

Forma de pago.– Los pagos de la dotación de la ayuda se realizarán por trimestres, entre el final del mes anterior al trimestre y el final del primer mes del trimestre correspondiente. Los trimestres serán: enero-febrero-marzo, abril-mayo-junio, julio-agosto-septiembre y octubre-noviembre-diciembre.

El abono de los gastos de matriculación se realizará una vez se presenten en la Dirección de Política Científica el justificante original de pago de los mismos. En el supuesto que se opte por pagos fraccionados no se abonará ninguno hasta que no se haya puesto a disposición de la Dirección de Política Científica el total de los pagos efectuados.

b) Kontratu-aldiko laguntzaren zenbatekoa eta ordaintzeko modua.

Laguntzaren zenbatekoa.– Kontratu-aldian, EPIFean ezarritakoari jarraiki formalizatutako kontratuetako bakoitzerako laguntza izango da aplikazio-zentroek –laguntzaren onuradunek- ikertzaileen soldata eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko enpresa- eta langile-kuota ordaintzeko. Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko enpresa- eta langile-kuota urte bakoitzari dagozkion kotizazio-tasen arabera kalkulatuko da.

Fase honetan, ezarpen-zentroak, guztira, 23.521,08 euroko laguntza jasoko du izango da urteko eta ikertzaileko. Ikertzaileek, berriz, urteko 17.832,50 euroko ordainsari gordina jasoko dute, hamabi hilekotan banatuta. Enpresa-kuotarako hasieran emandako kopuruaren eta azkenean ordaintzen denaren arteko aldea, urte bakoitzari dagozkion kotizazio-tasekin bat etorriz, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen bidez likidatuko da, behin laguntzetako bakoitzean egindako gastuak egiaztatu direnean.

Ordaintzeko modua.– Laguntza hau ezarpen-zentroei ordainduko zaie ordainketa bitan:

– Hirugarren berriztapenaz ari diren onuradunak dituzten ezarpen-zentroak laguntza-ebazpena eman eta esleipena onartu eta gero, % 50, eta % 50, berriz, 2010eko bigarren hiruhilekoan.

– Bigarren berriztapenaz ari diren onuradunak dituzten ezarpen-zentroak: laguntza emateko ebazpena eman eta gero % 50; esleipena onartu eta gero % 50, 2010eko bigarren seihilekoan.

Hala ere, ezarpen-zentroek edozein kontratu sinatu edo daudenak luzatu ahal izateko, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpenak ezarritakoari helduko zaio; ebazpen horrek 14. artikuluan ezarritako berritze-prozedura ebatziko du.

Onuradunei aurretik emandako funtsekin finantzatu ahal izango liratekeen finantza-errendimenduek ez dute emandako laguntzaren zenbatekoa handiagotuko.

Laguntza hauen onuradun diren ezarpen-zentroek, dagokienean, kasuan kasuko konturako atxikipenak eta diru-sarrerak gauzatuko dituzte prestatzen ari diren ikertzaileek egindako ordainketengatik.

2.– AK modalitatean emango den laguntzak honako ezaugarri hauek izango ditu:

2.1.– Laguntzaren iraupena.– Guztira 48 hilabeteko laguntza emango da, 12 hilabeteko lau denbora-alditan banatuko direnak laguntza ematen den egunetik kontatzen hasita, 17. artikuluko 2.2. ataleko a) idatz-zatian

b) Dotación de la ayuda y forma de pago del periodo de contrato.

Dotación de la ayuda.– Durante el periodo de contrato, la ayuda para cada uno de los contratos que se formalicen al amparo de lo dispuesto en el EPIF se destinará al abono de la retribución bruta y de la cuota empresarial a la Seguridad Social del personal investigador por parte de los centros de aplicación, que serán las personas beneficiarias de la misma. La cuota empresarial y de la persona trabajadora a aportar a la Seguridad Social se calculará de acuerdo a los tipos de cotización que correspondan para cada año.

La ayuda total que recibirá el Centro de aplicación por cada persona investigadora durante esta fase será de 23.521,08 euros anuales. La retribución bruta que deberán recibir las personas investigadoras será de 17.832,50 euros anuales, distribuidos en doce mensualidades. La diferencia entre la cantidad concedida inicialmente para la cuota empresarial y la finalmente resultante, de acuerdo a los tipos de cotización que correspondan para cada año, será liquidada mediante Resolución del Viceconsejero de Universidades e Investigación, una vez hayan sido comprobados los gastos efectuados en la ejecución de cada una de las ayudas.

Forma de pago.– Esta ayuda anual se abonará a los centros de aplicación en dos libramientos:

– centros de aplicación en los que se encuentren personas beneficiarias que han realizado su tercera renovación: un 50% tras la Resolución de concesión, y una vez aceptada la adjudicación, y un 50% en el segundo trimestre de 2010.

– centros de aplicación en los que se encuentren personas beneficiarias que han realizado su segunda renovación: un 50 tras la Resolución de concesión, y una vez aceptada la adjudicación, y un 50% en el segundo semestre de 2010.

No obstante, la firma de cualquier contrato o la ampliación de los existentes, por parte de los centros de aplicación, estará sujeta a lo que disponga la Resolución del Viceconsejero de Universidades e Investigación que resolverá el procedimiento de renovación que queda establecido en el artículo 14.

Los rendimientos financieros que se pudieran financiar por los fondos librados por anticipado a las personas beneficiarias no incrementarán el importe de la ayuda concedida.

Los centros de aplicación beneficiarios de estas ayudas realizarán, en su caso, las correspondientes retenciones a cuenta e ingresos por los pagos que realicen al personal investigador en formación.

2.– La ayuda otorgada en la modalidad AK tendrá las siguientes características:

2.1.– Duración de la ayuda.– Se concederá un total de 48 meses de ayuda, divididos en cuatro periodos de 12 meses a computar desde la fecha de inicio de la ayuda de acuerdo con lo establecido en la letra a) del apar-

ezarritakoari jarraiki. Denbora-aldi horietan guztietan zehar beka baten ezaugarri berak izango ditu.

Aldi baterako ezintasunak (gaixotasuna edo istripua), haurdunaldiko arriskuak edo behar bezala egiaztatutako amatasunagatiko edo aitatasunagatiko atsedenak beka denbora batez eteteko eskubidea ekarriko dute.

2.2.– Laguntzaren zenbatekoa, asegurua, matrikulazio- eta bidaia-gastuak eta ordaintzeko modua.

Laguntzaren zenbatekoa.– Laguntzaren zenbateko garbia urteko 16.692,00 eta 22.048,00 euro artekoa izango da, ezarpen-zentroa kokatuta dagoen herrialdearen baitan. Xede-herrialdearen egoera sozio-ekonomikoa kontuan hartuta, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen esleipen-ebazpenean zehaztuko da behin betiko zenbatekoa, ebaluazio-batzordearen proposamenari jarraiki.

Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko enpresa- eta langile-kuotak urte bakoitzari dagozkion kotizaziotasen eta hobarien arabera kalkulatuko dira, eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emango ditu, aurrekontuko ekitaldi bakoitzean programa honetarako erabilgarri dagoen aurrekontuaren kontura.

Asegurua.– Beka-prestakuntzan dauden ikertzaileak besteren konturako langiletzat hartuko dira Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean Barneratuta geratzeari dagokionez.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, laguntza ematen duen erakunde den heinean, bere gain hartuko ditu Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean enpresentzat ezarritako eskubideak eta betebeharrak.

Laguntza hasten den datatik aurrera onartuko da Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzea eta, ondorioz, kidetzea eta/edo alta ematea; jarduera amaitzen denean baja emango da.

Aurretik esandakoan eraginik izan gabe, atzerrian prestatzen ari diren ikertzaile horiek istripuetarako eta mediku-laguntzarako asegurua izango dute, beren egonaldiak irauten duen bitartean, Espainiako Gizarte Segurantzarekin kontzerturik ez duten herrialdeetan daudenean, edo kontzertu horren estaldura nahikoa ez denean.

Matrikulazio- eta bidaia-gastuak.– Laguntza hauen onuradunek, gainera, laguntzaren lehen zenbatekoarekin batera, matrikulazio- eta bidaia-gastuak finantzatzeko kopuru jakin batzuk ere jaso ahal izango dituzte, jarraian adierazten denari jarraiki:

Matrikulazio-gastuak: Ikertzaileak prestatzeko master- edo doktorego-programaren ikasketa-tasak finantzatzeko zenbatekoa, gehienez, urteko 6.567,00 eurokoa izango da, laguntzaren eskaera-orrian agiri bidez islatu eta justifikatuko den kostu-aurreikuspenarekin bat etorriz.

tado 2.2 del artículo 17. Durante todos estos periodos la ayuda tendrá las características de una beca.

Las situaciones de incapacidad temporal (enfermedad o accidente), riesgo durante el embarazo y descanso por maternidad y paternidad debidamente acreditadas darán derecho a la interrupción temporal de la ayuda.

2.2.– Dotación de la ayuda, seguro, gastos de matriculación y viajes y forma de pago.

Dotación de la ayuda.– La cuantía de la ayuda estará comprendida entre 16.692,00 y 22.048,00 euros anuales netos según el país donde se encuentre el centro de aplicación. La cuantía definitiva se fijará, teniendo en cuenta las condiciones socio-económicas del país de destino, en la Resolución de concesión del Viceconsejero de Universidades e Investigación, en función de la propuesta de la Comisión Evaluadora.

La cuota empresarial y de la persona trabajadora a aportar a la Seguridad Social se calculará de acuerdo a los tipos de cotización y bonificaciones correspondientes a cada año y serán aportadas por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación con cargo al presupuesto disponible de este programa en cada ejercicio presupuestario.

Seguro.– El personal investigador en formación de beca quedará asimilado a persona trabajadora por cuenta ajena, a los efectos de su inclusión en el Régimen General de la Seguridad Social.

El Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, como entidad otorgante de la ayuda, asumirá los derechos y obligaciones establecidos para las empresas en el Régimen General de la Seguridad Social.

La incorporación al Régimen General de la Seguridad Social, con la consiguiente afiliación y/o alta, así como su baja, se hará efectiva a partir de la fecha correspondiente de inicio o cese de la ayuda.

Sin perjuicio de lo anterior, este personal investigador en formación en el extranjero disfrutará de un seguro de accidentes y de asistencia médica durante su estancia cuando se trate de países sin concierto con la Seguridad Social española o cuando las coberturas de este concierto fueran insuficientes.

Gastos de matriculación y viajes.– Las personas beneficiarias de estas ayudas podrán además recibir junto con la primera dotación de la misma determinadas cantidades para poder afrontar la financiación de los gastos de matriculación y de viaje, de acuerdo a lo que se indica a continuación:

Gastos de matriculación: La cuantía para poder afrontar la financiación de las tasas académicas del programa de formación investigadora, master o doctorado, será una cantidad no superior a 6.567,00 euros anuales, de acuerdo a la previsión de coste que se reflejará y justificará documentalmente en la instancia de solicitud de la ayuda.

Bidaia-gastuak: Ezarpen-zentrorako joan-etorriko bidaia baten zenbateko osoa edo zati bat finantzatu ahal izateko kopurua Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen esleipen-ebazpenean zehaztuko da honako taula honi jarraiki:

| Jatorri-puntuaren eta helmugaren arteko distantzia | Bidaia-gastuetarako laguntzak |
|---|---|
| 1.000 km.ra arte | 300 euro |
| 1.001-2.500 km. | 600 euro |
| 2.501-11.000 km. | 1.000 euro |
| 11.000 km baino gehiago | 1.200 euro |

Matrikulazio- eta bidaia-gastuak direla-eta esleitutako behin-betiko zenbatekoak jasoko dira diru-laguntza emateko ebazpenean.

Ordaintzeko modua.– Laguntzaren ordainketak hiruhilekoka egingo dira, hiruhilekoaren aurreko hilaren amaiera eta dagokion hiruhilekoaren lehen hilabetearen amaiera artean. hiruhilekoak: urtarrila-otsaila-martxoa, apirila-maiatza-ekaina, uztaila-abuztua-iraila eta urria-azaroa-abendua.

Laguntzaren lehenengo ordainketarekin batera ordainduko dira matrikula-gastuak. Horretarako, prestatzen ari diren ikertzaileek ezarpen-zentroak matrikula egiteko jarritako epean ordaindu beharko dute matrikula. Ondoren, ordainketa egin eta 15 eguneko epean, jatorrizko ordainagiria aurkeztu beharko diote Zientzia Politikarako Zuzendaritzar; hori guztia, dagokion erregulazioa egiteko. Laguntza-aldia amaitzen denean edo laguntzari uko egin eta gero, jatorrizko ordainagiria aurkeztu ez bada, ordaindutako matrikula-gastuak itzultzeko prozesuari ekingo zaio.

Bidaia-gastuak laguntzaren lehenengo ordainketarekin batera ere ordainduko dira.

***9. artikulua.***– Laguntza berriak eskatzen dituzten pertsonak.

Laguntza hauek eskuratu ahal izateko, laguntza berriak eskatzen dituen pertsonak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Eskaera egiten duen unean eta, gutxienez, 2009ko urtarrilaren 1az geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) udalerri batean erroldaturik egotea.

Hala eta guztiz ere, deialdiaren xedearekin erlazionatutako goi-mailako ikasketak EAEtik kanpo egin dituztela-eta antzinatasun-eskakizuna bete ez arren, lehenago EAEn erroldaturik egon diren pertsonen eskaerak ere onartuko dira.

Gastos de viaje: La cuantía para poder afrontar total o parcialmente la financiación de un viaje de ida y vuelta al Centro de aplicación se fijará en la Resolución de concesión del Viceconsejero de Universidades e Investigación atendiendo a la siguiente tabla:

| Distancia entre origen y destino | Ayudas para gastos de viaje |
|---|---|
| Hasta 1.000 km | 300 euros |
| 1.001-2.500 km | 600 euros |
| 2.501-11.000 km | 1.000 euros |
| Más de 11.000 km | 1.200 euros |

Los importes definitivos de las cantidades asignadas por los gastos de matriculación y viajes se recogerán en la correspondiente Resolución de concesión.

Forma de pago.– Los pagos de la dotación de la ayuda se realizarán por trimestres, entre el final del mes anterior al trimestre y el final del primer mes del trimestre correspondiente. Los trimestres serán: enero-febrero-marzo, abril-mayo-junio, julio-agosto-septiembre y octubre-noviembre-diciembre.

Los gastos de matrícula se abonarán junto con la primera dotación de la ayuda. Para ello, el personal investigador en formación pagará la matrícula en el plazo que el centro de aplicación le conceda y presentará a la Dirección de Política Científica dentro de los 15 días siguientes a la realización del abono de la misma el justificante de pago original, todo ello con el fin de proceder a la regularización correspondiente. Si a la finalización del periodo de ayuda o tras la renuncia a la misma no se hubiera presentado el justificante de pago original se procederá a iniciar el procedimiento de reintegro de los gastos de matrícula abonados.

Los gastos de viaje se abonarán, igualmente, junto con la primera dotación de la ayuda.

***Artículo 9.***– Personas solicitantes de ayudas nuevas.

Para optar a estas ayudas la persona solicitante de ayudas nuevas deberá cumplir los siguientes requisitos:

a) Estar empadronada en un municipio de la Comunidad Autónoma del País Vasco (en adelante, CAPV) en el momento de presentar la solicitud y, al menos, desde el 1 de enero de 2009.

Se admitirán, no obstante, aquellas solicitudes de personas que habiendo estado empadronadas en la CAPV anteriormente, no cumplan el requisito de antigüedad exigido por motivos de realización de estudios superiores relacionados con el objeto de esta convocatoria fuera de la Comunidad.

b) Europar Batasunekoak ez diren pertsona atzerritarrek, gainera, dagokien egoitza-baimena eduki beharko dute.

c) Doktorego-programa batera sartu ahal izateko titulua izatea edo ikasketak gaindituta izatea, honako unibertsitate-antolamendu hauetako bati jarraiki:

– Hirugarren zikloko ikasketak, apirilaren 30eko 778/1998 Errege Dekretuak arautuak: lizentziadun, ingeniari edo arkitekto titulu ofiziala lortzeko ikasketak.

– Graduondoko ikasketa ofizialak, 56/2005 Errege Dekretuak edo 1393/2007 Errege Dekretuak arautuak:

* Lizentziadun, ingeniari edo arkitekto titulu ofiziala lortzeko ikasketak.

* Diplomatu, ingeniari teknikari eta arkitekto teknikari titulua lortzeko ikasketak amaituta eta gutxienez graduondoko 60 kreditu gaindituta izatea.

– Eskatzaileek titulua lortuta badute edo atzerriko hezkuntza-sistemen arabera doktoregora iristeko ikasketak egin badituzte, 1393/2007 Errege Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoaren menpe egongo dira.

b) Ezarpen-zentroaren konpromisoa, inprimaki normalizatuan eta legezko ordezkariak sinatuta, prestatzen ari den eta laguntza bigarren edo hirugarren aldiz berritzea lortu duen doktoratu aurreko ikertzailearekin praktikaldiko kontratua formalizatzeko, edo dagoena 12 hilabetez luzatzeko, EPIFean xedatutakoari jarraiki. Dokumentu horrekin batera sartuko da agindu honetako 9. artikuluko g) idatz-zatian adierazten den debekuaren pean ez egotea ziurtatzen duen zinpeko aitorpena.

c) Europar Batasunekoak ez diren atzerritarrei dagokienez, bigarren edo hirugarren berritzerako lanerako baimenaren fotokopia konpultsatua.

4.3.– AK modalitatean, berritzea eskatzen duten pertsonek, gainera, matrikulazio-gastuen estimazio bat aurkeztu beharko dute, bai eta hori bermatzen duen dokumentazio ofiziala ere. Matrikulazio-gastuen estimazioan, tasa akademikoak soilik hartuko dira kontuan, eta, bat baino gehiago izanez gero, kontzeptutan banakatuta eta deskripzio labur batekin azalduko dira.

4.4.– Berritzea eskatu duten eta dagoeneko zuzendaria eta proiektua esleitu zaien pertsonek, hori espedientean adierazten ez bada, honakoak ere erantsi beharko dituzte:

a) Ikerketa-proiektuaren zuzendariaren gutuna, proiektu horren buru izatea onartzen duela adieraziko duena.

b) Ikerketa-proiektuari buruzko memoria laburra (gehienez 2 orrialde), proiektuaren zuzendariak ontzat emanda. Txostenean, proiektuaren izenburua eta deskripzioa azalduko dira, xedeak, interes zientifiko edo

de pago de los derechos del título, siempre que no lo hubieran presentado anteriormente.

Quienes a fecha de presentación de la solicitud de renovación todavía no hayan obtenido dicha titulación, adjuntarán al impreso de solicitud de renovación notificación de la fecha prevista para la realización de la prueba de Suficiencia Investigadora. Las personas solicitantes de renovación que superen la prueba deberán remitir a la Dirección de Política Científica copia compulsada del DEA, o en su defecto, el justificante de pago de los derechos del título. Asimismo, informarán de ello a la Dirección de Política Científica enviando un e-mail a la dirección huisl033@ej-gv.es.

En aquellos supuestos que dicha titulación se obtenga tras finalizar el periodo de beca que actualmente se disfruta o no se presente la documentación acreditativa en el plazo previsto en el párrafo siguiente se aplicará lo dispuesto en la letra e) del apartado 2.2.1 de este artículo.

El plazo para presentar la copia compulsada del DEA, o en su defecto, el justificante de pago de los derechos del título de las personas que se encuentren en la situación prevista en el párrafo anterior finalizará siempre el día 5 del mes anterior en el que surtirá efectos la renovación.

b) Compromiso del centro de aplicación en impreso normalizado, firmado por su representante legal, para formalizar un contrato en prácticas o prorrogar en doce meses más el actual, de acuerdo a lo dispuesto por el EPIF, al personal investigador predoctoral en formación que obtenga la segunda o tercera renovación. Este documento incluirá la declaración jurada en la que se acredite que no se está incurso en la prohibición señalada en la letra g) del artículo 9 de esta Orden.

c) En el caso de personas extranjeras que no pertenezcan a la Unión Europea, copia compulsada del permiso de trabajo para la segunda o tercera renovación.

4.3.– Las personas solicitantes de renovación de la modalidad AK, deberán presentar además su estimación de los gastos de matrícula, junto con la documentación oficial que la avale. En la estimación de los gastos de matrícula únicamente se considerarán las tasas académicas, que, en caso de ser más de una, vendrán desglosadas por conceptos y brevemente descritas.

4.4.– Aquellas personas solicitantes de renovación que se les haya asignado finalmente una persona directora y Proyecto, y no conste en su expediente, deberán también adjuntar:

a) Carta de la persona directora del proyecto de investigación en la que se exprese que acepta dirigir dicho proyecto.

b) Breve memoria (máximo 2 páginas) del proyecto de investigación con el visto bueno de la persona directora del proyecto. La memoria deberá contener el título y la descripción del proyecto, incluyendo objetivos,

soziala, eta aurreikusitako lanen aipamena barne. Bibliografia oinarrizkoena ere erantsiko da.

5.– Honako hauek izango dira berritzeko eskaera-orriak eta gainerako agiriak aurkezteko epeak:

interés científico o social así como una indicación de los trabajos previstos. Se incluirá también la bibliografía más esencial.

5.– Los plazos de presentación de las instancias de solicitud de renovación y demás documentación serán:

| Berritze mota eta modalitatea | Aurkezteko epeak |
|---|---|
| Lehen eta bigarren aldiz berritzea | 2009ko irailaren 1etik 30era (biak barne) |
| Hirugarren aldiz berritzea | Hilabeteko epea, Agindu hau EHAAn agertzen den egunaren biharamunetik hasita |

| *Tipo de renovación y modalidad* | *Plazos de presentación* |
|---|---|
| *Primera y segunda renovación* | *Del 1 al 30 de septiembre de 2009 (ambos incluídos)* |
| *Tercera renovación* | *Un mes a partir del día siguiente de la publicación de esta orden en el BOPV* |

6.– Laguntzen berritzea ematea Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen bidez gauzatuko da, ebaluazio-batzordearen proposamena aintzat hartuta; Zientzia Politikarako zuzendariak, Unibertsitateetako zuzendariak eta Zientzia Politikarako Zuzendaritzako teknikari batek, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak izendatuak, osatuko dute ebaluazio-batzorde hori.

7.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, sei hilabeteko epean gehienez, berritze-eskaera jasotzen den egunaren biharamunetik hasita. Eskaerak isiltasunagatik onartu egin direla ulertuko da aipatutako epean ebazpena argitaratzen ez bada. Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Halaber, AE modalitatean matrikulazio-gastuei dagokienez, aurreko artikuluaren 6. atalak aurreikusitakoa ezarriko da.

8.– Berritzeen onuradunen eskubideak eta betebeharrak agindu honetako 17. artikuluan jaso dira, dagokien modalitatearen eta aldiaren arabera.

9.– Berritze horien ukoak jarraian datorren artikuluan xedatutakoari jarraiki arautuko dira.

***15. artikulua***.– Uko-egiteak.

1.– Uko-egiteen berri eman beharko zaio Zientzia Politikarako zuzendariari, prestatzen ari den ikertzaileak, saileko zuzendariak (edo, kontraturik badago, zen-

6.– La concesión de la renovación de las ayudas se efectuará mediante Resolución del Viceconsejero de Universidades e Investigación a propuesta de una Comisión Evaluadora formada por el Director de Política Científica, y la Directora de Universidades y un Técnico de la Dirección de Política Científica, nombrado por el Viceconsejero de Universidades e Investigación.

7.– La Resolución se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco en el plazo máximo de seis meses a contar desde el día siguiente al de la recepción de la solicitud de renovación. Las solicitudes se podrán entender estimadas por silencio, si en el plazo señalado no se produce la publicación de la Resolución. Contra dicha Resolución podrán las personas interesadas interponer recurso de alzada ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente de su publicación.

Asimismo, y para los gastos de matrícula en la modalidad AE se aplicará lo establecido en el apartado 6 del artículo anterior.

8.– Los derechos y obligaciones de las personas beneficiarias de estas renovaciones serán los recogidos en el artículo 17 de esta Orden de acuerdo a la modalidad y periodo correspondiente.

9.– Las renuncias a estas renovaciones se regirán por lo dispuesto en el artículo siguiente.

***Artículo 15***.– Renuncias.

1.– Las renuncias deberán ser comunicadas mediante escrito dirigido al Director de Política Científica, firmado por el personal investigador en formación, la

troko legezko ordezkariak) eta proiektuaren zuzendariak edo tutoreak sinatutako idazki baten bidez. Bertan adieraziko da zein diren uko-egitearen arrazoiak eta zein izango den horren eraginetarako data.

Uko-egitearen eraginetarako datan hasi eta, gehienez, 10 egun baliodunеko epean egingo da jakinarazpen hori. Horren berri emango da, baita ere, huisiesp@ej-gv.es helbidera e-mail bat bidaliz uko-egitearen eraginetarako data baino lehenago.

2.– Uko-egiteak baloratu eta, hala badagokio, onartu egingo dira Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpenaren bidez.

3.– Beka-aldian uko egiteak, horren eraginetarako data epe horretako lehenengo hiruhilekoan sartzen bada, laguntza osoaren itzultzea ekarriko du (laguntzaren zenbatekoa, matrikulazio- eta bidaia-gastuak). Beka-aldiaren gainerako denbora-tartean uko egiteak, horren ondoriotarako dataren hiruhilekoko lehenengo egunetik jasotako laguntzaren itzultzea ekarriko du.

4.– Kontratu-aldian, ikertzaileak uko egiten badu, praktikaldiko kontratua finantzatzeko erabili ez diren zenbatekoak itzuli beharko ditu ezarpen-zentroak. Uko-egite horren eragin ekonomikoak hori gauzatzen den egun berean hasiko dira, bidegabeko ordainketak egon badira egin beharko diren itzultzeetan eraginik izan gabe.

***16. artikulua.***– Doktoregoa eskuratzea.

1.– Laguntza-aldian edo hurrengo sei hilabeteetan, doktoregoa lortuz gero eta hori behar bezala egiaztatzen bada eta laguntzari uko egin ez bazaio, 3.000 euro gehiago jasotzeko eskubidea izango du doktorego-tesiaren egile horrek; 18. artikuluko 3. atalean ezarritakoa gorabehera.

2.– Horretarako, doktoregoa aurreko atalean adierazitako baldintzetan lortu dutela egiaztatzen dutenek eskaera bat aurkeztu beharko diote Zientzia Politikarako zuzendariari, hilabeteko epean, titulua eskuratu duen egunaren biharamunetik hasita. Eskaera horrekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Doktoregoa eskuratu izana egiaztatzen duen tituluaren fotokopia konpultsatua, jasotako kalifikazioarekin batera; halakorik ez bada, tituluaren eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria.

b) Zientzia Politikaren Zuzendaritzak dauzkan banku-datuak aldatu badira, hirugarren interesdunaren datuen altaren fitxa, eskatzaileak izenpetuta eta dagokion banketxearen zigiluarekin.

3.– Artikulu honetan aurreikusitako laguntza ematea Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen bidez egingo da.

4.– Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, laguntza-eskaera jaso eta, gehienez ere, sei hilabe-

persona que dirija el Departamento (o la representante legal del Centro si existe contrato) y la persona directora del Proyecto o tutora, con expresión de los motivos y la fecha de efectos de la misma.

Dicha comunicación deberá realizarse con una antelación mínima de 10 días hábiles a la fecha de efectos de la renuncia Este hecho se comunicará además enviando un e-mail a la dirección huisiesp@ej-gv.es, antes del día de efectos de la renuncia.

2.– Dichas renuncias serán valoradas y, en su caso, aceptadas mediante Resolución del Viceconsejero de Universidades e Investigación.

3.– La renuncia en periodo de beca cuya fecha de efectos sea dentro del primer trimestre del citado periodo supondrá el reintegro del total de la ayuda (dotación de la ayuda, gastos de matrícula y viaje). La renuncia a la ayuda durante el resto del periodo supondrá el reintegro de la ayuda desde el primer día del trimestre en el que tenga efectos la renuncia.

4.– En el periodo de contrato, la renuncia del personal investigador implicará la devolución por el centro de aplicación de las cantidades no utilizadas en la financiación del contrato en prácticas. Los efectos económicos de dicha renuncia se producirá con la misma fecha en la que ésta se produjera, sin perjuicio de los reintegros que deberán realizarse en el caso de haberse producido pagos indebidos.

***Artículo 16.***– Obtención del doctorado.

1.– La obtención del doctorado debidamente acreditada durante el periodo de la ayuda o en los seis meses posteriores, sin que haya mediado renuncia, dará derecho a recibir una ayuda adicional de 3.000 euros al autor-a de la tesis doctoral, todo ello con independencia de lo establecido en el apartado tercero del artículo 18.

2.– A tal efecto, las personas que acrediten la obtención del doctorado en las condiciones establecidas en el apartado anterior deberán presentar una solicitud dirigida al Director de Política Científica en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente a la obtención de dicho título. A dicha solicitud se le deberá acompañar la siguiente documentación:

a) Copia compulsada del título que acredite el doctorado, junto con la calificación obtenida, o en su defecto, el justificante de pago de los derechos del título.

b) En el supuesto que los datos bancarios que obren en poder de la Dirección de Política Científica hubieran sufrido alguna variación, ficha de alta de datos del tercero interesado, firmada por la persona solicitante y sellada por la entidad bancaria correspondiente.

3.– La concesión de la ayuda prevista en este artículo se efectuará mediante Resolución del Viceconsejero de Universidades e Investigación.

4.– La Resolución se notificará individualmente a las personas interesadas en el plazo máximo de seis meses

teko epean. Eskaerak isiltasunagatik onartu egin direla ulertuko da aipatutako epean ebazpena jakinarazten ez bada. Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

5.– Publizitate-printzipioa betetzeko eta emate-ebazpenak banan-banan eta esanbidez jakinarazi behar diren arren, 2010eko bigarren seihilekoan Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpenaren bitartez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da artikulu honetan aurreikusitako laguntza gehigarriaren onuradunen zerrenda, jasotako zenbatekoa adieraziz.

***17. artikulua.***– Onuradunen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Kapitulu honetan arautukako laguntzen onuradunak 15 egun naturaleko epea izango du, emakida-ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik edo Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, laguntza horri espresuki uko egiteko; horrela ez bada, onartutzat hartuko da.

2.– Onuradunak laguntza onartzen badu, honako eskubide eta betebehar hauek onartzen dituela ulertuko da:

2.1.– Prestatzen ari diren ikertzaileen eskubideak:

2.1.1.– AE modalitatean prestatzen ari diren ikertzaileak: Ikertzaile horien eskubide dira EPIFeko 5. artikuluan ezartzen direnak.

EPIFeko 5. artikuluko d) idatz-zatiari dagokionez, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak baimendu eta finantzatu ahal izango ditu prestatzen ari diren ikertzaileen egonaldi laburrak beren ezarpen-zentroa ez den beste zentro batzuetan. Horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren urteroko Agindua hartuko da kontuan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak finantzatutako Ikertzaileen Prestakuntzarako Programako laguntzen ezarpen-zentroak ez diren zentroetan egonaldi laburrak egiteko deialdia egiten duena.

2.1.2.– AK modalitatean prestatzen ari diren ikertzaileak: Deialdi honetan ezarritakoez gainera, honako eskubide hauek izango dituzte ikertzaileek:

a) Laguntza gehigarrien deialdietan parte hartzea, zientzia-bileretara joateko edo bere ezarpen-zentroa ez den zentroetan prestakuntza- eta hobekuntza-egonaldiak egiteko.

b) Bere ikerketako prestakuntza-jardueratik, bere ekarpenarekin bat etorriz, eratorritako jabetza intelektualaren eskubideez baliatzea, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bateginak, apirilaren 12ko 1/1996

a partir del día siguiente al de recepción de la solicitud de ayuda. Las solicitudes se podrán entender estimadas por silencio, si en el plazo señalado no se produce la notificación de la Resolución. Contra dicha Resolución podrán las personas interesadas interponer recurso de alzada ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación.

5.– A fin de dar cumplimiento al principio de publicidad, y sin perjuicio de la notificación expresa e individualizada de las Resoluciones de concesión, en el segundo semestre de 2010 mediante Resolución del Viceconsejero de Universidades e Investigación se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la relación de personas investigadoras que hayan resultado beneficiarias de la ayuda adicional prevista en este artículo, con expresión de las cuantía percibida.

***Artículo 17.***– Derechos y obligaciones de las personas beneficiarias.

1.– La persona beneficiaria de las ayudas reguladas en este Capítulo dispondrá de un plazo de 15 días naturales a partir del día siguiente a la notificación o publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la Resolución de concesión para renunciar expresamente y por escrito a la misma, de no hacerlo así se dará por aceptada.

2.– La aceptación de la ayuda por la persona beneficiaria implicará el reconocimiento de los derechos y el cumplimiento de las obligaciones siguientes:

2.1.– Derechos del Personal Investigador en Formación:

2.1.1.– Personal Investigador en Formación de la Modalidad AE: Son derechos de este personal los establecidos en el artículo 5 del EPIF.

En relación con el apartado d) del artículo 5 del EPIF, la Dirección de Política Científica podrá autorizar y financiar la realización de estancias cortas en centros distintos al de aplicación al personal investigador en formación, en los términos previstos en la correspondiente Orden anual de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan ayudas para estancias cortas en centros distintos al de aplicación de las becas del Programa de Formación de Personal Investigador financiadas por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

2.1.2.– Personal Investigador en Formación de la Modalidad AK: Son derechos de este personal, además de los que establece esta convocatoria:

a) Participar en las convocatorias de ayudas complementarias para asistencia a reuniones científicas o para estancias de formación y perfeccionamiento en centros diferentes a su centro de aplicación.

b) Ejercer los derechos de propiedad intelectual derivados de su propia actividad formativa en la investigación y de acuerdo con su contribución, conforme a lo establecido en el Texto Refundido de la Ley de Propie-

Legegintzako Errege Dekretuak onartuak, ezarritakoari jarraiki. Eskubide horiek ez dute egindako ikerketak sorrarazi ditzakeen beste eskubide batzuekiko mendekotasunik izango, eta osagarri eta metagarri izango dira horiekin. Horrek ez du eraginik izango lan kolektibotik eratorritako baldintzatzaileetan, prestatzen ari den ikertzailea ikerketa-proiektu kolektibo batean parte hartzen ari denean edo horri lotua dagoenean.

c) Industria-jabetzari dagokionez, dagokion deialdiak xedatutakoa hartuko da kontuan, martxoaren 20ko 11/1986 Legea, edo patenteen esparruan, eta, dagokionean, urtarrilaren 18ko 55/2002 Errege Dekretua, ikerkuntza-erakunde publikoetan egindako asmaketak ustiatzeari eta lagatzeari buruzkoa. Aipatutako eskubide horiek ez dute, inola ere, soldata–izaera izango.

d) Beren ezarpen-zentroak onartzen dien eskubide oro, deialdi honetan ezarritakoarekin bateraezin ez badira.

2.2.– Prestatzen ari diren ikertzaileen betebeharrak: prestatzen ari diren ikertzaileek honako betebehar hauek izango dituzte:

a) Jarraian adierazten diren egunetan sartzea ezarpen-zentroan:

– Prestatzen ari diren ikertzaileak, laguntzaren lehenengo 12 hilabeteak hasteko badaude, orokorrean, 2010ko urtarrilaren lehenengo hamabostaldian hasiko dira aplikazio-zentroan. Nolanahi ere, beka-aldia 2010ko urtarrilaren 1ean hasiko da, bai ekonomia-ondorioetarako bai Gizarte Segurantzan alta emateari dagokionez. Atal honetan finkatutako epea baino beranduago hasiz gero, itzuli egin beharko dira urtarrilaren 1etik benetan hasitako egunera bitarte kobratutako zenbatekoak. Ikertzailea 2010ko otsailaren 1a baino lehenago hasten ez bada, kendu egingo zaio Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpenaren bidez emandako laguntza, baldin eta Zientzia Politikarako Zuzendaritzari beranduago hasteko baimena eskatu, eta horrek eman ez badio.

Dagokion saileko zuzendariaren idazki izenpetuaren bidez egiaztatu beharko da ikertzaileak hasi direla, eta idazkian hasiera-eguna zehaztuko da. Idazki hori Zientzia Politikarako Zuzendaritzara igorriko da 2010ko otsailaren 1a baino lehen.

– Prestatzen ari diren ikertzaileek, laguntzaren berritzea lortzen badute, egiaztatu egin beharko dute ezarpen-zentroan jarraitzen dutela, dagokien saileko zuzendariaren eta proiektuaren zuzendariaren idazki baten bidez. Idazki hori Zientzia Politikarako Zuzendaritzara igorriko da, berritzea hasi eta 10 eguneko epean. Gainera, prestatzen ari diren ikertzaileek, kontratua izenpetzen badute, edo daukatena luzatzen badute, kontratua eskuratzen dutenean, horren fotokopia igorriko diote Zientzia Politikarako Zuzendaritzari.

dad Intelectual, aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/1996, de 12 de abril. Los citados derechos serán independientes, compatibles y acumulables con otros derechos que pudieran derivarse de la investigación realizada, sin perjuicio de los condicionantes derivados de la obra colectiva cuando el personal investigador en formación participe o esté vinculado a un proyecto colectivo de investigación.

c) En cuanto a los derechos sobre propiedad industrial, se estará a lo que disponga la correspondiente convocatoria, en el marco de la Ley 11/1986, de 20 de marzo, de Patentes, y, en su caso, el Real Decreto 55/2002, de 18 de enero, sobre explotación y cesión de invenciones realizadas en los entes públicos de investigación. Los referidos derechos no tendrán en ningún caso naturaleza salarial.

d) Todos aquellos que su centro de aplicación les reconozca y que no sean incompatibles con lo establecido en esta convocatoria.

2.2.– Obligaciones del Personal Investigador en Formación: el personal investigador en formación quedará obligado a:

a) Incorporarse al Centro de aplicación en las fechas que a continuación se indican:

– El Personal Investigador en Formación que comience sus primeros doce meses de ayuda se incorporará, con carácter general, a su centro de aplicación dentro de la primera quincena de enero del 2010. No obstante, el inicio de la fase de beca tanto a efectos económicos como de cómputo temporal y alta en la Seguridad Social será desde el 1 de enero de 2010. El retraso en la incorporación sobre el plazo establecido en este apartado supondrá la obligación de devolver los importes cobrados desde el 1 de enero hasta la fecha de incorporación real. Si la incorporación no se llevara a cabo antes del 1 de febrero de 2010, salvo en los casos que hubiera solicitado y obtenido autorización de la Dirección de Política Científica para retrasar su incorporación, se procederá a la retirada de la ayuda concedida mediante Resolución del Viceconsejero de Universidades e Investigación.

Todas las incorporaciones deberán acreditarse mediante escrito firmado por la persona que dirige el Departamento y la directora del Proyecto correspondiente con la fecha exacta de las mismas. Dicho escrito se remitirá a la Dirección de Política Científica antes del día 1 de febrero de 2010.

– El Personal Investigador en Formación que obtenga la renovación de la ayuda deberá acreditar su continuidad en el centro de aplicación mediante escrito de la persona que dirige el Departamento correspondiente y la directora del Proyecto. Dicho escrito se remitirá a la Dirección de Política Científica en el plazo de 10 días desde la fecha de inicio de la renovación. Además, el Personal Investigador en Formación que firme contrato o amplíe el que actualmente tenga deberá mandar copia del mismo a la Dirección de Política Científica una vez obre en su poder.

b) Ezarpen-zentroko arauak onartu eta betetzea, eta dagokion prestakuntza-programan eta, hala badagokio, ikerketa-proiektuaren lan-egitasmoan zehaztutako jarduerak gauzatzea, eta jarduera dedikazio esklusiboaz betetzea, 18. artikuluaren bigarren atalean ezarritakoaren kalterik gabe.

c) Laguntzaren ezarpen-zentroan egon beharko dute. Ikerketa-beharrak direla eta, ezarpen-zentrotik aldi baterako egingo diren irteerak, astebete baino gehiagorako edo atzerrira joateko, Zientzia Politikarako Zuzendaritzari jakinaraziko zaizkio, eta horrek onartu beharko du. Jakinarazpen hori irteera-eguna baino gutxienez hamar egun lehenago gauzatuko da, saileko zuzendariak, proiektuaren zuzendariak (halakorik badago) eta prestatzen ari den ikertzaileak sinatutako idazki arrazoitu baten bidez. Espainiara egingo diren astebeterako irteerak Zientzia Politikarako Zuzendaritzan jakinarazi beharko dituzte.

Beka-aldian bakarrik eskatu ahal izango da ezarpen-zentroa aldatzeko baimena. Saileko zuzendariak, proiektuaren zuzendariak (halakorik badago) eta prestatzen ari den ikertzaileak sinatutako idazki arrazoitu bidez egingo da hori, eta horrekin batera aurkeztuko da beste ezarpen-zentroan onartua izan dela egiaztatzen duen ziurtagiria, honakoek izenpetuta: bertako legezko ordezkariak, zentro horretan dagokion saileko zuzendariak, eta zentro horretan dagokion proiektuko zuzendariak, halakorik badago; azken horren curriculum vitaea ere erantsiko da.

d) Laguntzak dirauen artean, proiektuaren zuzendaria berbera izango da, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak aldatzeko baimen espresurik ematen ez badu behintzat. Proiektuaren zuzendaria aldatzeko baimena Zientzia Politikarako Zuzendaritzari eskatuko zaio idazki arrazoitu baten bidez, postua utziko duen zuzendariak eta prestatzen ari den ikertzaileak izenpetuta. Idazki horrekin batera sartzera doan pertsonaren onarpen-idazkia eta horren curriculum vitaea bidaliko dira.

e) Laguntzak irauten duen artean egindako ikerketa-lanen ondorioz sortutako artikulu, batzarretarako komunikazio eta bestelako argitalpen guztietan (doktorego-tesia barne) azalduko da Eusko Jaurlaritzak finantziazioa eman duela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren Ikertzaileen Prestakuntzarako Programako laguntza baten bitartez.

f) Ikertzaileek, berritzea lortu dutenek izan ezik, laguntza-aldia amaitu eta hurrengo hilabetean, amaierako txosten bat aurkeztuko dute, 10 orrialdekoa gehienez; bertan, egindako jarduera akademiko eta lan guztiak adieraziko dira, bai eta horien emaitzak ere, eta proiektuko zuzendariaren edo tutorearen bermea izan beharko du testuak. Lan horren emaitzak argitaratu egin badira, argitalpenen separatak edo fotokopiak bidaliko dira Zientzia Politikarako Zuzendaritzara. Patenterik sortu bada, horiek ere agirietan jasoko dira. Gainera,

b) Aceptar y cumplir las normas propias del centro de aplicación, realizando las actividades previstas en su programa de formación y, en su caso, en el plan de trabajo del proyecto de investigación, y desempeñar su actividad en régimen de dedicación exclusiva, sin perjuicio de lo establecido en el apartado segundo del artículo 18.

c) Permanecer en el centro de aplicación de la ayuda. Cualquier salida temporal por necesidades de investigación del centro de aplicación, superior a una semana o con destino en el extranjero, deberá ser notificada y autorizada por la Dirección de Política Científica. La solicitud se realizará, al menos, con diez días de adelanto sobre la fecha prevista de salida mediante escrito razonado y firmado por la persona directora del Departamento, la del Proyecto, si lo hubiera, y el personal investigador en formación. Las salidas temporales por necesidades de investigación inferiores a una semana que se realicen en España deberán ser notificadas a la Dirección de Política Científica.

Únicamente se podrá solicitar autorización de cambio de centro de aplicación durante la fase beca y se realizará mediante escrito razonado firmado la persona directora del Departamento, la del Proyecto, si lo hubiera, y el personal investigador en formación, acompañado del certificado de admisión en el nuevo centro de aplicación firmado por las siguientes personas: la representante legal del nuevo centro de aplicación, la nueva directora de Departamento, la nueva directora del Proyecto, si la hubiera; asimismo se adjuntará el currículum vitae de ésta última.

d) Mantener la misma persona que dirija el Proyecto durante el disfrute de la ayuda, salvo autorización expresa de la Dirección de Política Científica. La autorización de cambio se solicitará a la Dirección de Política Científica mediante escrito razonado firmado por la persona saliente y el personal investigador en formación que se enviará junto con el escrito de aceptación de la persona entrante y su currículum vitae.

e) Hacer constar la financiación del Gobierno Vasco, a través de una ayuda del Programa de Formación de Personal Investigador del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, en todos los artículos, comunicaciones a congresos y demás publicaciones a que dé origen el trabajo de investigación realizado durante el disfrute de la ayuda, incluida la tesis doctoral.

f) Presentar dentro del mes siguiente al de finalización del período de disfrute de la ayuda, excepto los que hayan conseguido la renovación, una memoria final, máximo 10 folios, que contenga la totalidad de las actividades académicas y trabajos realizados y sus resultados, avalado por la persona directora del Proyecto o tutora. Si los resultados del trabajo han sido objeto de publicaciones se remitirán separatas o copias de éstas a la Dirección de Política Científica. Igualmente se documentarán las patentes a que hubiera dado lugar.

laguntzaren onuradun izan den prestatzen ari den ikertzailearen Curriculum Vitae eguneratua ere igorriko da. Halaber, doktore-maila lortutakoan edo doktorego-tesia defendatutakoan, horren berri emango zaio Zientzia Politikarako Zuzendaritzari, doktore-graduaren aktaren edo hori egiaztatzen duen beste edozein agiri ofizialen fotokopia bidaliz.

g) Laguntzari uko egiten bazaio, Zientzia Politikarako Zuzendaritzari jakinaraztea hori, beka-aldian zein kontratu-aldian zehar, 15. artikuluan zehaztutako baldintzen arabera.

h) Doktorego-titulua eskuratu dutela jakinaraztea Zientzia Politikarako Zuzendaritzari, titulua eskuratu eta gehienez 10 egun balioduneko epean.

i) Beka-aldian, aldi baterako ezintasunekin, haurdunaldiko arriskuekin edo amatasunagatiko edo aitatasunagatiko atsedenekin erlazionatutako gertakaririk egongo balitz, Zientzia Politikarako Zuzendaritzari jakinaraztea. Zientzia Politikarako Zuzendaritzari jakinarazteko, egoera egiaztatzen duten ziurtagiriak igorriko zaizkio honako epe hauetan:

– Hiru egun, aldi baterako ezintasunezko bajako parte medikoaren eta baja berresteko partearen luzatze-datatik hasita.

– Egun bat, altako parte medikoaren luzatze-datatik hasita.

– Aste bat, amatasun-txostenaren luzatze-datatik hasita.

Gainera, posta elektroniko bidez jakinarazi beharko da aurretik esandako agiriak igorri direla esandako epeetan; honako helbide honetara zuzenduko da gutuna: huisiesp@ej-gv.es.

j) AE modalitatean prestatzen ari diren ikertzaileek ikertzeko gaitasuna lortu beharko dute beka-aldian zehar, DEA edo, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitutako irakaskuntzen egitura berriarekin bat etorriz, horren ordezko administrazio-agiria eskuratuz.

k) Hemen jasotzen ez diren eta EPIFeko 6. artikuluan jasotzen direnak.

3.– AE modalitatean prestatzen ari diren ikertzaileen ezarpen-zentroaren betebeharrak.

3.1.– Prestatzen ari diren ikertzaileekin kontratu-egoeran ezartzen den lan-harremanetik sor daitezkeen betebeharren kaltetan izan gabe, honako hauek izango dira AE modalitatean prestatzen ari diren ikertzaileen ezarpen-zentroaren betebehar orokorrak:

a) Prestatzen ari den ikertzaileari behar duen laguntza ematea, eta bere jarduera ongi gauzatzeko behar dituen bitarteko, tresna edo ekipoak erabiltzeko aukera ematea.

b) Tesiaren tutorea edo zuzendaria izendatzea, eta, hala badagokio, baita zuzendarikidea ere, doktorego-

Además, se remitirá el Curriculum Vitae actualizado del personal investigador en formación que ha disfrutado la ayuda. Asimismo, una vez obtenido el grado de doctorado o defendida la tesis doctoral, se informará a la Dirección de Política Científica de tal hecho enviando fotocopia del acta de grado o cualquier otro documento oficial que lo acredite.

g) Comunicar a la Dirección de Política Científica la renuncia a la ayuda, tanto durante el periodo de beca como de contrato, en los términos y condiciones previstos en el artículo 15.

h) Comunicar a la Dirección de Política Científica la obtención del título que acredite el doctorado, en el plazo máximo de 10 días hábiles desde la fecha de obtención.

i) Comunicar a la Dirección de Política Científica, durante el periodo de beca, cualquier incidencia relativa a situaciones determinantes de incapacidad temporal, riesgo durante el embarazo y descanso por maternidad y paternidad. Estas incidencias se comunicarán a la Dirección de Política Científica, enviando la documentación acreditativa de la situación, en los siguientes plazos:

– Tres días contados a partir de la fecha de la expedición del parte médico de baja de incapacidad temporal y del de confirmación de la baja.

– Un día desde la expedición del parte médico de alta.

– Una semana desde la expedición del informe de maternidad.

Además, del envío de la documentación anterior en las fechas indicadas se deberá informar mediante correo electrónico a la dirección huisiesp@ej-gv.es.

j) El Personal Investigador en Formación de la modalidad AE deberá alcanzar la suficiencia investigadora durante el periodo de beca mediante la obtención del DEA o documento administrativo que la sustituya, de acuerdo con la nueva estructura de enseñanzas adaptada al Espacio Europeo de Enseñanza Superior.

k) Las no contempladas aquí y recogidas en el artículo 6 del EPIF.

3.– Obligaciones del centro de aplicación del personal investigador en formación de la Modalidad AE.

3.1.– Son obligaciones generales del centro de aplicación del personal investigador en formación de la modalidad AE, sin perjuicio de las derivadas de la relación laboral que se establezca con el personal investigador en formación en situación de contrato, las siguientes:

a) Proporcionar al personal investigador en formación el apoyo necesario y facilitarle la utilización de los medios, instrumentos o equipos que resulten precisos para el normal desarrollo de su actividad.

b) Designar una persona tutora o directora de Tesis y, en su caso, codirectora, con posesión del título que

titulua izango dutenak. Horiek arduratuko dira, orokorrean, prestatzen ari diren ikertzaileen ikasketa- eta ikerketa-jardueren koordinazioaz eta aholkularitzaz, eta, konkretuki, emandako laguntzaren xedea zenbateraino betetzen den neurtzeaz. Gainera, urtero, eta 14. artikuluko 4.1 ataleko c) idatz-zatian xedatutakoari jarraiki, prestatzen ari den ikertzailearen jarduera akademikoei eta/edo ikerketa-jarduerei, errendimenduari eta, hala badagokio, hurrengo ikasturterako aukerei buruzko isilpeko txostena egingo du, eta laguntza berritzeko eskaerari erantsiko zaio.

c) Prestatzen ari den ikertzailea trebatzeko programa modu egokian gauzatzen dela bermatuko du, eta doktoregaiari ezingo zaio bere ikerketaren garapenarekin edo horretarako behar den prestakuntza bereziarekin zerikusirik ez duen bestelako jarduerarik agindu denbora horretan.

d) Prestatzen ari den ikertzaileari hori ikertzen ari den sailetan, institutuetan eta erakunde publiko edo pribatuetan integratzeko aukera ematea.

e) Zientzia Politikarako Zuzendaritzari laguntza-emakidaren hasierako egoeraren uko-egiteen, eteteen eta aldaketen berri ematea, bai eta kontratu-aldian prestatzen ari diren ikertzaileentzako laguntzaren xedea modu arruntean betetzea eragoz dezaketen gainerako gorabeheren berri ere, gertatzen diren egunetik hasi eta gehienez 10 egun balioduneko epean.

f) Kontratu-aldian zehar, prestatzen ari diren ikertzaileek doktorego-titulua eskuratu dutela jakinaraztea Zientzia Politikarako Zuzendaritzari, titulua eskuratu eta gehienez 10 egun balioduneko epean.

g) Praktikaldiko kontratuak formalizatzea EPIFean ezarritako baldintzak betetzen dituzten prestatzen ari diren ikertzaileekin, edo, dagokionean, lehendik egindako praktikaldiko kontratuak luzatzea, 14. artikuluan ezarritako berritze-prozedura ebatzitakoan.

h) Ezarpen-zentroaren eta prestatzen ari diren ikertzaileen arteko kontratuetan, eta laguntza-programa honen babesean egindako ikerketak direla eta sor daitezkeen argitalpen eta bestelako lanetan, kontratua Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak finantzatu duela aipatu beharko da.

3.2.– Ezarpen-zentroak lan-kontratua egin beharko die EPIFen horretarako ezarritako baldintzak betetzen dituzten prestatzen ari diren ikertzaileei, indarreko lan-legeriarekin eta 14. artikuluan ezarritako berritze-prozedurari amaiera ematen dion Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpenean adierazten den iraupenarekin, ordainsariekin eta gainerako betekizunekin bat etorriz.

acredite el doctorado, con la responsabilidad general de coordinar y orientar, tanto la actividad académica como investigadora del personal investigador en formación, y con la particular, de hacer el seguimiento del grado de cumplimiento del objeto de la ayuda concedida. Además, anualmente, y de acuerdo a lo dispuesto en el apartado 4.1.c) del artículo 14, elaborará un informe confidencial, sobre las actividades de la persona investigadora en formación y su rendimiento y, en su caso, perspectivas de cara al próximo año, que acompañará a la solicitud de renovación de la ayuda.

c) Velar por el desarrollo adecuado del programa de formación del personal investigador en formación, sin que pueda exigírsele la realización de cualquier otra actividad que no esté relacionada con el desarrollo de su investigación o de la formación específica requerida para ésta durante su transcurso.

d) Permitir la integración del Personal Investigador en Formación en los Departamentos, Institutos y Organismos públicos o privados en los que lleve a cabo la investigación.

e) Comunicar a la Dirección de Política Científica las renuncias, interrupciones o modificaciones de la situación inicial de concesión de la ayuda, así como del resto de incidencias que puedan alterar el normal cumplimiento del objeto de la misma para el personal investigador en formación en el periodo de contrato, en el plazo máximo de 10 días hábiles desde la fecha en que se produzcan.

f) Comunicar a la Dirección de Política Científica la obtención del título que acredite el doctorado del personal investigador en formación durante el periodo de contrato, en el plazo máximo de 10 días hábiles desde la fecha de obtención.

g) Formalizar los contratos en prácticas con el personal investigador en formación que cumpla los requisitos establecidos en el EPIF, o en su caso, ampliar los contratos en prácticas existentes, una vez resuelto el procedimiento de renovación establecido en el artículo 14.

h) En los contratos entre el centro de aplicación y el personal investigador en formación y en las publicaciones y otros resultados a los que pueda dar lugar las investigaciones realizadas al amparo de este Programa de ayudas, deberá hacerse referencia a la financiación del contrato por parte del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

3.2.– El centro de aplicación tendrá la obligación de contratar laboralmente al personal de investigación en formación que cumpla los requisitos establecidos a tal fin en el EPIF, de acuerdo a la legislación laboral vigente y con la duración, retribuciones y demás requisitos que se indiquen en la correspondiente Resolución del Viceconsejero de Universidades e Investigación que ponga fin al procedimiento de renovación establecido en el artículo 14.

3.3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko VI. tituluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren laguntzen eta diru-laguntzen araubideari buruzkoa xedatutakoa bete beharko du ezarpen-zentroak.

4.– Edonola ere, diru-zenbatekoak jasotzeko eta laguntza berritzeko, derrigorrezko baldintza izango da ikertzaileek eta ezarpen-zentroak beren betebeharrak betetzea. Betebehar horiek ez badira betetzen, laguntza errebokatzeko prozedura instruitu ahal izango da eta, behar izanez gero, laguntza itzuli behar izango da.

***18. artikulua.***– Bateraezintasunen erregimena.

1.– Programa honetako laguntza bat jasotzea ez da bateragarria EPIFeko erabiltze eremuaren barruan dauden programetako laguntzak edo antzeko izaerako beste edozein beka edo laguntza orain jasotzen aritzearekin edo noizbait jaso izanarekin; eta, oro har, soldata-izaera duen beste edozein zenbateko jasotzearekin, artikulu honetako hurrengo atalean aurreikusitakoa salbu.

2.– a) AE modalitatean prestatzen ari diren ikertzaileek, DEA edo, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitutako irakaskuntzen egitura berriarekin bat etorriz, horren ordezko administrazio-agiria badute, laguntza hau bateragarri egin ahal izango dute irakaskuntza-lanekin (gehienez 60 ordu urtean), betiere prestakuntza-helburuekin, eta Zientzia Politikarako Zuzendaritzak baimenduta, laguntzen ikerketa- eta prestakuntza-helburuak hutsaldu gabe. Irakasle-lanak hasteko aurreikusitako eguna baino gutxienez hamabost egun lehenago eskatu beharko da baimena, idazki arrazoituaren bitartez eta departamentuko eta proiektuko zuzendariak eta prestatzen ari den ikertzaileak sinatuta.

Salbuespen gisa, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak baimendu ahal izango die gorago aipatutako baldintzak betetzen dituztenei laguntzarekin bateragarri egitea lanaldi mugatuko ordezkapenerako kontratu bat (urteko 60 ordukoa gehienez); betiere, ezarpen-zentroak era egokian arrazoitzen badu, eta dagokion unibertsitateko ikerketa-errektoreordetzaren onarpena baldin badauka. Irakasle-lanak hasteko aurreikusitako eguna baino gutxienez hamabost egun lehenago eskatu beharko da baimena. Ikerketako errektorearen onarpena beharko du, eta departamentuko eta proiektuko zuzendariak eta prestatzen ari den ikertzaileak sinatu beharko dute eskaera.

b) Programa honetako laguntza bat jasotzea bateragarria izango da ezarpen-zentroak ez diren zentroetan egonaldi laburrak egiteko laguntzekin, 17. artikuluaren bigarren atalean jasota agertzen den bezala.

3.3.– El centro de aplicación estará sujeto a lo dispuesto en el Título VI del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, relativo al régimen de ayudas y subvenciones de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

4.– En todo caso, la percepción de las dotaciones económicas y la renovación de la ayuda se irán condicionando al cumplimiento de las obligaciones tanto por el personal de investigación como por el centro de aplicación. La falta de cumplimiento de dichas obligaciones podrá dar lugar a la instrucción del correspondiente procedimiento de revocación de la ayuda y, en su caso, de reintegro.

***Artículo 18***.– Régimen de incompatibilidades.

1.– El disfrute de una ayuda al amparo de este programa es incompatible con estar disfrutando o haber disfrutado ayudas de programas que estén dentro del ámbito de aplicación del EPIF y, con carácter general, con la percepción de cualquier cuantía que tenga naturaleza salarial, a excepción de lo previsto en el apartado siguiente de este artículo.

2.– a) El personal investigador en formación de la modalidad AE que esté en posesión del DEA o documento administrativo que lo sustituya de acuerdo con la nueva estructura de enseñanzas adaptada al Espacio Europeo de Educación Superior, podrán compatibilizar esta ayuda con colaboraciones en tareas docentes, con fines formativos, hasta un máximo de 60 horas anuales, previa autorización de la Dirección de Política Científica, sin que en ningún caso pueda desvirtuarse la finalidad investigadora y formativa de las ayudas. La solicitud de autorización se realizará, al menos, con quince días de adelanto sobre la fecha prevista de inicio de la colaboración en las tareas docentes, mediante escrito razonado y firmado por la persona directora del Departamento, la del Proyecto, si la hubiera, y el personal investigador en formación.

Excepcionalmente, la Dirección de Política Científica podrá autorizar la compatibilidad de la ayuda con un contrato a tiempo parcial de sustitución hasta un máximo de 60 horas anuales a quienes cumplan los requisitos arriba indicados, cuando sea debidamente justificada por el centro de aplicación y cuente con la aprobación del Vicerrectorado de Investigación de la Universidad correspondiente. La solicitud de autorización se realizará, al menos, con quince días de adelanto sobre la fecha prevista de inicio del contrato y además de la aprobación del Vicerrector de Investigación deberá ir firmada por la persona directora del Departamento, la del Proyecto, si la hubiera, y el personal investigador en formación.

b) El disfrute de una ayuda al amparo de este programa es compatible con las ayudas recibidas para la realización de estancias cortas en centros distintos al de aplicación al personal investigador en formación, tal y como se prevé en el apartado segundo del artículo 17.

3.– Doktoregoa lortzeak laguntzaren xedea amaitu dela esan nahi du eta, beraz, laguntza horren gaineko eskubideak ere amaitu egingo dira. Halaber, laguntza horiek ikertzaileen hasierarako eta prestakuntzarako direnez, horien indarraldia amaitu eta gero, balizko berritze-aldiak barne, ezingo da programa honetako beste laguntzarik jaso.

4.– Modalitate honetako ikertzaileak aldi baterako etena egiteko eskubidea izango du, gaixotasun edo istripuak eragindako aldi baterako ezintasunagatiko bajan dagoenean, haurdunaldiko arriskua dagoenean eta amatasun edo aitatasunagatiko atsedenaldian dagoenean bakarrik, aplikagarri den arautegiarekin bat etorriz. Etena ezin izango da inoiz errekuperatu.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak laguntza osagarriak ordainduko ditu, onuradunak laguntzaren % 100 jaso dezan aldi baterako atal honetan adierazitako egoeretan ezintasunagatiko baja-egoeran dagoenean, haurdunaldia arriskuan dagoenean edo aitatasunagatik edo amatasunagatik atsedena duenean.

5.– Prestatzen ari diren ikertzaileen ezarpen-zentroek gertatzen den edozein bateraezintasun-arrazoiren berri eman beharko diote Zientzia Politikarako Zuzendaritzari.

III. KAPITULUA
PROIEKTUEI ATXIKITAKO PERTSONAL IKERTZAILEA PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO LAGUNTZEN PROGRAMA: B MODALITATEA

***19. artikulua.***– Programaren xedea.

Programa honen xedea da doktorego-programa baten barruan doktorego-tesia egin nahi duten, eta, Oinarrizko Ikerketari eta/edo Ikerketa Aplikatuari buruzko Proiektuak, Lankidetza Proiektuak eta Giza eta Gizarte Zientziei buruzko Proiektuak egiteko laguntzetarako deialdia egiten duen programaren bitartez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak finantzatutako ikerketa-proiektu bat egin nahi duten unibertsitateko goi-mailako tituludunen prestakuntza sustatzea, agindu honetan eta EPIFen xedatutakoari jarraiki.

***20. artikulua.***– Laguntzen ezaugarriak.

3.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, sei hilabeteko epean gehienez, Agindu hau argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Eskaerak ezetsitzat joko dira, 30/1992 Legearen, azaroaren 26koaren, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 44.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, esandako apean ebazpena argitaratzen ez bada.

4.– Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

5.– Eskatutako agiri akademikoak ez aurkezteagatik, horien aurkezpena eskaeren aurkezpen-epea baino beranduagora atzeratu den kasuetan, 21. artikuluko d) idatz-zatian aurreikusten den bezala, edo dagokien modalitateetan ez berritzeagatik, edo 2009ko azaroaren 30a (30a barne) baino lehen uko egiteagatik edo dagokien modalitateetan ez berritzeagatik hutsik gera daitezkeen postuak ordezkoei eman ahal izango zaizkie Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen bidez. Ordezko horiek, ordezko-zerrendan, emandako azkeneko laguntzaren hurrengo tokietan sailkatuta egon behar dute, hutsunea sortu den proiektu berean.

6.– Matrikulazio-gastuen ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, prestatzeko programaren ikasketa-tasengatik jatorrizko ordainagiria jaso eta, gehienez ere, sei hilabeteko epean.

Publizitate-printzipioa betetzeko eta emate-ebazpenak banan-banan eta esanbidez jakinarazi behar diren arren, 2010eko bigarren seihilekoan Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpenaren bitartez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da aurreko atalean aurreikusitako matrikulazio-gastuen onuradunen zerrenda, jasotako zenbatekoa adieraziz.

***Artículo 25.***– Resolución, plazo para resolver, recursos y procedimiento de publicidad de las ayudas nuevas.

1.– La concesión y denegación de las ayudas nuevas previstas en este Capítulo se efectuará mediante Resolución única y expresa del Viceconsejero de Universidades e Investigación, en base a la propuesta de Resolución elevada por la Comisión Evaluadora.

2.-La citada Resolución deberá motivarse y contendrá la relación de solicitudes a las que se concede la ayuda, la lista de reservas y las solicitudes excluidas del proceso de selección con expresión del motivo.

3.– La Resolución se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco en el plazo máximo de seis meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente Orden. Las solicitudes se podrán entender desestimadas, a efectos de lo previsto en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, si en el plazo señalado no se produce la publicación de la Resolución.

4.– Contra dicha Resolución podrán las personas interesadas interponer recurso de alzada ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

5.– Las plazas vacantes existentes por no presentar la documentación académica exigida en los supuestos en los que dicha presentación se haya pospuesto a un plazo posterior a la presentación de las solicitudes, tal y como se prevé en la letra d) del artículo 21, así como por renuncias que se produzcan con fecha límite hasta el 30 de noviembre de 2009 inclusive o porque no se produzca la renovación en las modalidades correspondientes, podrán ser otorgadas por Resolución del Viceconsejero de Universidades e Investigación a las personas solicitantes que figuren en el lugar inmediato al de la última ayuda concedida en la lista de reservas del mismo proyecto en el que se produjo la vacante.

6.– La Resolución de los gastos de matrícula se notificará individualmente a las personas interesadas en el plazo máximo de seis meses a partir del día siguiente al de recepción del justificante de abono de las tasas académicas del programa de formación.

A fin de dar cumplimiento al principio de publicidad, y sin perjuicio de la notificación expresa e individualizada de las Resoluciones de concesión, en el segundo semestre de 2010 mediante Resolución del Viceconsejero de Universidades e Investigación se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la relación de personas investigadoras a las que se les hayan abonado los gastos de matrícula previstos en el párrafo anterior, con expresión de las cuantía percibida.

***26. artikulua.***– Ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko laguntzen programaren esparruan, B modalitatean, 2008-2009 ikasturterako emandako laguntzen berritzea.

1.– Honako pertsona hauek eskatu ahal izango dute 2008-2009 ikasturterako emandako laguntzen berritzea:

1.1.– Lehen aldiz berritzea: agindu hau indarrean sartzen den unean 2008-2009 ikasturterako B modalitatean emandako laguntzaren lehenengo hamabi hilabeteetan dauden prestatzen ari diren ikertzaileak.

1.2.– Bigarren eta hirugarren aldiz berritzea: agindu hau indarrean sartzen den unean 2008-2009 ikasturterako B modalitatean emandako laguntzaren lehenengo berritzean eta bigarren berritzean, hurrenez hurren, dauden prestatzen ari diren ikertzaileak.

2.– Horien berritze-epeak, helburuak eta ezaugarriak honako hauek izango dira:

2.1.– Lehen aldiz berritzea:

2.1.1.– 12 hilabetez luzatuko da laguntza.

2.1.2.– Orokorrean, prestakuntzara zuzenduta egongo da, eta, bereziki, DEA eskuratzera, edota Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitutako irakaskuntzen egitura berriarekin bat etorriz, horren ordezko administrazio-agiria.

2.2.– Bigarren eta hirugarren aldiz berritzea:

2.2.1.– DEA edo, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitutako irakaskuntzen egitura berriarekin bat etorriz, haren ordezko administrazio-agiria daukatenei soilik emango zaie.

2.2.2.– Horietako bakoitzean, gehienez, 12 hilabetez luzatuko da laguntza.

2.2.3.– Ikerlanak eta doktorego-tesia egitera zuzenduta egongo da batez ere.

2.2.4.– Berritze-aldi bakoitzean jasotako laguntza ezarpen-zentroarekin formalizatuko den 12 hilabeteko praktikaldiko kontratua (hasierakoa edo dagoenaren zabaltzea) finantzatzera bideratuko da.

2.2.5.– Beka-aldia amaitzean, pertsona onuradunak bere ezarpen-zentroarekin praktikaldiko kontratua formalizatzeko baldintzak betetzen ez baditu, gehienezko sei hilabeteko epea izango du horiek egiaztatzeko, eta, epe horretan, ez du laguntzaren zenbatekorik jasoko. Epe hori, beka-aldiaren amaierako datatik kontratuaren hasierako datara arte iraungo duena, ezingo da kontratu-aldian berreskuratu. Sei hilabeteko epe horretan, kontratatua izateko baldintzak betetzen dituela egiaztatzen ez badu, laguntza jasotzen jarraitzeko eskubidea galduko du.

3.– Berritutako laguntzen ezaugarriak 20. artikuluan zehaztutakoak izango dira.

***Artículo 26.***– Renovación de las ayudas concedidas en el curso 2008-2009 dentro del programa de ayudas predoctorales para formación de personal investigador, modalidad B.

1.– Podrán solicitar la renovación de las ayudas concedidas en el curso 2008-2009 las siguientes personas:

1.1.– Primera Renovación: el personal investigador en formación que a la fecha en que surta efectos esta Orden esté disfrutando de los primeros doce meses de ayuda concedida en la modalidad B en el curso 2008-2009.

1.2.– Segunda y Tercera Renovación: el personal investigador en formación que a la fecha en que surta efectos esta Orden esté disfrutando, respectivamente, de la primera o segunda renovación de la ayuda concedida en la modalidad B en el curso 2008-2009.

2.– Los plazos de las renovaciones, las finalidades y características de las mismas serán las siguientes:

2.1.– Primera renovación:

2.1.1- Será por 12 meses más de ayuda.

2.1.2.– Estará, principalmente, orientada a la formación y en especial, a la obtención del DEA o documento administrativo que lo sustituya de acuerdo con la nueva estructura de enseñanzas adaptada al Espacio Europeo de Educación Superior.

2.2.– Segunda y Tercera Renovación:

2.2.1.– Sólo se concederán cuando se esté en posesión del DEA o documento administrativo que lo sustituya de acuerdo con la nueva estructura de enseñanzas adaptada al Espacio Europeo de Educación Superior

2.2.2.– Serán cada una, como máximo, de 12 meses más de ayuda.

2.2.3.– Estarán orientadas principalmente a la realización de tareas de investigación y elaboración de la tesis doctoral.

2.2.4.– La ayuda recibida en cada periodo de renovación será destinada a la financiación de 12 meses de contrato en prácticas (inicio o ampliación del existente) que se formalizará con el centro de aplicación.

2.2.5.– Si al término del periodo de beca la persona beneficiaria no cumpliera con los requisitos para formalizar el contrato en prácticas con su centro de aplicación, tendrá un periodo máximo de seis meses para poder acreditarlos y durante el mismo no percibirá ninguna de las dotaciones de la ayuda. Dicho periodo, que irá desde la fecha de finalización de la fase de beca hasta la fecha de comienzo del contrato, no será recuperable en el periodo de contrato. Si al término de dicho periodo de seis meses no acreditara los requisitos para poder ser contratado, perderá los derechos a la continuidad de la ayuda.

3.– Las características de las ayudas renovadas serán las descritas en el artículo 20.

4.– Berritzea eskatzeko, berritze-eskaerarako orria igorri beharko da Zientzia Politikarako Zuzendaritzara, honako agiri hauekin batera:

4.1.– Doktoratu aurreko berritzaile guztientzat:

a) Eskabide-orri normalizatua. Dokumentu horrekin batera sartuko da 21. artikuluko f) idatz-zatian adierazten den debekuaren pean ez dagoela ziurtatzen duen zinpeko aitorpena.

b) Laguntza-emakidaz geroztik edo azkeneko aldiz laguntza berritu zenez geroztik egindako ikasketen eta ikerketa-jardueren memoria (gehienez bost orrialde), egonez gero kalifikazioak ere jarriz. Berritzea eskatu duenak eta ikerketa-proiektuaren zuzendariak izenpetu beharko dute.

c) Gutun-azal itxi baten barruan, berritzea eskatu duenaren jarduera akademikoei eta/edo ikerketa-jarduerei, errendimenduari eta hurrengo ikasturterako aukerei buruzko isilpeko txostena, ikerketa-proiektuaren zuzendariak izenpetuta.

4.2.– Bigarren edo hirugarren berritzea eskatzen dutenek, gainera, honakoak ere aurkeztu beharko dituzte:

a) DEAren edo Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitutako irakaskuntzen egitura berriarekin bat etorriz, horren ordezko administrazio-agiriaren fotokopia konpultsatua, edo, besterik ezean, tituluaren eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria, aurretik aurkeztu ez badute.

Berritze-eskaera aurkezterakoan oraindik titulu hori lortu ez dutenek ikertzeko gaitasunaren proba egiteko aurreikusitako dataren jakinarazpena erantsiko diote berritzeko eskaera-orriari. Proba gainditzen duten berritzearen eskatzaileek Zientzia Politikako Zuzendaritzara igorri beharko dute DEAren fotokopia konpultsatua edo, besterik ezean, tituluaren eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria. Era berean, Zientzia Politikarako Zuzendaritzari jakinaraziko diote honako helbide honetara e-mail bat bidaliz: huisl033@ej-gv.es.

Titulu hori egun indarrean dagoen beka-aldia amaitu ondoren lortzen bada, artikulu honetako 2.2.1 ataleko e) idatz-zatian ezarritakoa aplikatuko da.

Berriztapenak ondorioak izan behar dituen egunaren aurreko hilaren 5a izango da DEAko kopia konpultsatua aurkezteko epea edo, halakorik ezean, tituluaren eskubideen ordainagiria aurkeztu beharko dute aurreko paragrafoan adierazitako epean dauden lagunek.

b) Ezarpen-zentroaren konpromisoa, inprimaki normalizatuan eta legezko ordezkariak sinatuta, prestatzen ari den eta laguntza bigarren edo hirugarren aldiz berritzea lortu duen doktoratu aurreko ikertzailearekin praktikaldiko kontratua formalizatzeko, edo dagoena 12 hilabetez luzatzeko, EPIFek xedatutakoari jarraiki. Dokumentu horrekin batera sartuko da 21. artikuluko

4.– La solicitud de renovación se realizará enviando a la Dirección de Política Científica una instancia de solicitud de renovación acompañada de la siguiente documentación:

4.1.– Para todos los renovantes predoctorales:

a) Impreso de solicitud normalizado. Este documento incluirá la declaración jurada que acredite que no se está incurso en la prohibición señalada en la letra f) del artículo 21.

b) Memoria (máximo cinco páginas) de las actividades académicas e investigadoras realizadas desde la concesión de la ayuda o la última renovación de ésta, incluyendo calificaciones académicas si las hubiere. Deberá ir firmada por la persona solicitante de la renovación y por la que dirija el proyecto de investigación.

c) Informe confidencial en sobre cerrado, firmado por la persona que dirija el Proyecto de Investigación, sobre las actividades académicas y/o investigadoras realizadas por la solicitante de la renovación, su rendimiento y perspectivas de cara al próximo curso.

4.2.– Las personas solicitantes de la segunda o tercera renovación deberán presentar también:

a) Copia compulsada del DEA o documento administrativo que lo sustituya de acuerdo con la nueva estructura de enseñanzas adaptada al Espacio Europeo de Educación Superior, o en su defecto, el justificante de pago de los derechos del título, siempre que no lo hubieran presentado anteriormente.

Quienes a fecha de presentación de la solicitud de renovación todavía no hayan obtenido dicha titulación, adjuntarán al impreso de solicitud de renovación notificación de la fecha prevista para la realización de la prueba de Suficiencia Investigadora. Las personas solicitantes de renovación que superen la prueba deberán remitir a la Dirección de Política Científica copia compulsada del DEA, o en su defecto, el justificante de pago de los derechos del título. Asimismo, informarán de ello a la Dirección de Política Científica enviando un e-mail a la dirección huisl033@ej-gv.es.

En aquellos supuestos que dicha titulación se obtenga tras finalizar el periodo de beca que actualmente se disfruta se aplicará lo dispuesto en la letra e) del apartado 2.2.1 de este artículo.

El plazo para presentar la copia compulsada del DEA, o en su defecto, el justificante de pago de los derechos del título de las personas que se encuentren en la situación prevista en el párrafo anterior finalizará siempre el día 5 del mes anterior en el que surtirá efectos la renovación.

b) Compromiso del centro de aplicación en impreso normalizado, firmado por su representante legal, para formalizar un contrato en prácticas o prorrogar en 12 meses más el actual, de acuerdo a lo dispuesto por el EPIF, al personal investigador predoctoral en formación que obtenga la segunda o tercera renovación Este documento incluirá la declaración jurada en la que se acredi-

f) idatz-zatian adierazten den debekuaren pean ez dagoela ziurtatzen duen zinpeko aitorpena.

c) Europar Batasunekoak ez diren atzerritarrei dagokienez, bigarren edo hirugarren berritzerako lanerako baimenaren fotokopia konpultsatua.

5.– Eskaera-orriak eta gainerako agiriak aurkezteko epea hilabetekoa honako hau izango da:

te que no se está incurso en la prohibición señalada en la letra f) del artículo 21.

c) En el caso de personas extranjeras que no pertenezcan a la Unión Europea, copia compulsada del permiso de trabajo para la segunda o tercera renovación.

5.– Los plazos de presentación de las instancias de solicitud y demás documentación:

| Berritze mota eta modalitatea | Aurkezteko epeak |
|---|---|
| Lehen eta bigarren aldiz berritzea | 2009ko irailaren 1etik 30era (biak barne) |
| Hirugarren aldiz berritzea | Hilabeteko epea, Agindu hau EHAAn agertzen den egunaren biharamunetik hasita |

| *Tipo de renovación y modalidad* | *Plazos de presentación* |
|---|---|
| *Primera y segunda renovación* | *Del 1 al 30 de septiembre de 2009 (ambos incluidos)* |
| *Tercera renovación* | *Un mes a partir del día siguiente de la publicación de esta orden en el BOPV* |

6.– Laguntzen berritzea ematea Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen bidez gauzatuko da, ebaluazio-batzordearen proposamena aintzat hartuta; Zientzia Politikarako zuzendariak, Unibertsitateetako zuzendariak eta Zientzia Politikarako Zuzendaritzako teknikari batek, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak izendatuak, osatuko dute ebaluazio-batzorde hori.

Halaber, AE modalitateko matrikulazio-gastuei dagokienez, aurreko artikuluaren 6. atalak aurreikusitakoa ezarriko da.

7.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, sei hilabeteko epean gehienez, berritze-eskaera jasotzen den egunaren biharamunetik hasita. Eskaerak isiltasunagatik onartu egin direla ulertuko da aipatutako epean ebazpena argitaratzen ez bada. Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

AE modalitateko matrikulazio gastuei dagokionez, artikuluaren 6. atalak aurreikusitakoa aplikatuko da.

8.– Berritzeen onuradunen eskubideak eta betebeharrak 29. artikuluan jasotakoak izango dira, dagokien laguntza-aldiaren arabera.

6.– La concesión de la renovación de las ayudas se efectuará mediante Resolución del Viceconsejero de Universidades e Investigación a propuesta de una Comisión Evaluadora formada por el Director de Política Científica, la Directora de Universidades y un Técnico de la Dirección de Política Científica, nombrado por el Viceconsejero de Universidades e Investigación.

Asimismo, y para los gastos de matrícula en la modalidad AE se aplicará lo establecido en el apartado 6 del artículo anterior.

7.– La Resolución se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco en el plazo máximo de seis meses a contar desde el día siguiente al de la recepción de la solicitud de renovación. Las solicitudes se podrán entender estimadas por silencio, si en el plazo señalado no se produce la publicación de la Resolución. Contra dicha Resolución podrán las personas interesadas interponer recurso de alzada ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente de su publicación.

Por lo que se refiere a los gastos de matrícula de la modalidad AE será de aplicación lo establecido en el apartado 6 del artículo.

8.– Los Derechos y Obligaciones de las personas beneficiarias de estas renovaciones serán los recogidos en el artículo 29 de acuerdo al periodo correspondiente de la ayuda.

9.– Berritze horien ukoak jarraian datorren artikuluan xedatutakoari jarraiki arautuko dira.

***27. artikulua.***– Uko-egiteak.

1.– Uko-egiteen berri eman beharko zaio Zientzia Politikarako zuzendariari, prestatzen ari den ikertzaileak, saileko zuzendariak (edo, kontraturik badago, zentroko legezko ordezkariak) eta proiektuaren zuzendariak edo tutoreak sinatutako idazki bidez. Bertan adieraziko da zein diren uko-egitearen arrazoiak eta zein izango den horren eraginetarako data. Uko-egitearen eraginetarako datan hasi eta, gehienez, 10 egun balioduneko epean egingo da jakinarazpen hori. Horren berri emango da, baita ere, huisiesp@ej-gv.es helbidera e-mail bat bidaliz uko-egitearen eraginetarako data baino lehenago.

2.– Uko-egiteak baloratu eta, hala badagokio, onartu egingo dira Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpenaren bidez.

3.– Beka-aldian uko egiteak, horren eraginetarako data epe horretako lehenengo hiruhilekoan sartzen bada, laguntza osoaren itzultzea ekarriko du (laguntzaren zenbatekoa eta matrikulazio-gastuak). Beka-aldiaren gainerako tartean uko egiteak, horren ondoriotarako dataren hiruhilekoko lehenengo egunetik jasotako laguntzaren itzultzea ekarriko du.

Uko-egitea hiruhilekoaren amaieran eta hurrengo hilekoari dagokiona ordaindu ondoren gertatzen bada, aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoez gain erabili ez den hiruhilekoari dagokiona ere itzuli beharko da.

4.– Kontratu-aldian, ikertzaileak uko egiten badu, praktikaldiko kontratua finantzatzeko erabili ez diren zenbatekoak itzuli beharko ditu ezarpen-zentroak. Uko-egite horren eragin ekonomikoak hori gauzatzen den egun berean hasiko dira, bidegabeko ordainketak egon badira egin beharko diren itzultzeetan eraginik izan gabe.

***28. artikulua.***– Doktoregoa eskuratzea.

1.– Laguntza-aldian edo hurrengo sei hilabeteetan, doktoregoa lortuz gero eta hori behar bezala egiaztatzen bada eta laguntzari uko egin ez bazaio, 3.000 euro gehiago jasotzeko eskubidea izango du doktorego-tesiaren egile horrek; 30. artikuluko 2. atalean ezarritakoa gorabehera.

2.– Horretarako, doktoregoa aurreko atalean adierazitako baldintzetan lortu dutela egiaztatzen dutenek eskaera bat aurkeztu beharko diote Zientzia Politikarako zuzendariari, hilabeteko epean, titulua eskuratu duen egunaren biharamunetik hasita. Eskaera horrekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

9.– Las renuncias a estas renovaciones se regirán por lo dispuesto en el artículo siguiente.

***Artículo 27***.– Renuncias.

1.– Las renuncias deberán ser comunicadas mediante escrito dirigido al Director de Política Científica, firmado por el personal investigador en formación, la persona que dirija el Departamento (o la representante legal del Centro si existe contrato) y la persona directora del Proyecto o tutora, con expresión de los motivos y la fecha de efectos de la misma. Dicha comunicación deberá realizarse con una antelación mínima de 10 días hábiles a la fecha de efectos de la renuncia Este hecho se comunicará también enviando un e-mail a la dirección huisiesp@ej-gv.es, antes del día de efectos de la renuncia.

2.– Dichas renuncias serán valoradas y, en su caso, aceptadas mediante Resolución del Viceconsejero de Universidades e Investigación.

3.– La renuncia en periodo de beca cuya fecha de efectos sea dentro del primer trimestre del citado periodo supondrá el reintegro del total de la ayuda (dotación de la ayuda y gastos de matrícula). La renuncia a la ayuda durante el resto del periodo supondrá el reintegro de la ayuda desde el primer día del trimestre en el que tenga efectos la renuncia.

En el supuesto de que la renuncia se produjera al término del trimestre y una vez abonada la ayuda correspondiente al siguiente trimestre, la devolución implicará, además de las cantidades señaladas en el párrafo anterior, el reintegro del trimestre no disfrutado.

4.– En el periodo de contrato, la renuncia del personal investigador implicará la devolución por el centro de aplicación de las cantidades no utilizadas en la financiación del contrato en prácticas. Los efectos económicos de dicha renuncia se producirá con la misma fecha en la que ésta se produjera, sin perjuicio de los reintegros que deberán realizarse en el caso de haberse producido pagos indebidos.

***Artículo 28***.– Obtención del doctorado.

1.-La obtención del doctorado durante el periodo de la ayuda o en los seis meses posteriores, sin que haya mediado renuncia, debidamente acreditada, dará derecho a recibir una ayuda adicional de 3.000 euros a la persona autora de la tesis doctoral, todo ello con independencia de lo establecido en el apartado segundo del artículo 30.

2.– A tal efecto, las personas que acrediten la consecución del doctorado en las condiciones establecidas en el apartado anterior deberán presentar una solicitud dirigida al Director de Política Científica en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente a la obtención de dicho título. A dicha solicitud se le deberá acompañar la siguiente documentación:

a) Doktoregoa eskuratu izana egiaztatzen duen tituluaren fotokopia konpultsatua, jasotako kalifikazioarekin batera; halakorik ez bada, tituluaren eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria.

b) Zientzia Politikaren Zuzendaritzak dauzkan banku-datuak aldatu badira, hirugarren interesdunaren datuen altaren fitxa, eskatzaileak izenpetuta eta dagokion banketxearen zigiluarekin.

3.– Artikulu honetan aurreikusitako laguntza ematea Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen bidez egingo da.

4.– Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, laguntza-eskaera jaso eta, gehienez ere, sei hilabeteko epean. Eskaerak isiltasunagatik onartu egin direla ulertuko da aipatutako epean ebazpena jakinarazten ez bada. Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

5.– Publizitate-printzipioa betetzeko eta emate-ebazpenak banan-banan eta esanbidez jakinarazi behar diren arren, 2010eko bigarren seihilekoan Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpenaren bitartez Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da artikulu honetan aurreikusitako laguntza gehigarriaren onuradunen zerrenda, jasotako zenbatekoa adieraziz.

***29. artikulua.***– Onuradunen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Kapitulu honetan arautako laguntzen onuradunak 15 egun naturaleko epea izango du, emakida-ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik edo Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, laguntza horri espresuki uko egiteko; horrela ez bada, onartutzat hartuko da.

2.– Onuradunak laguntza onartzen badu, honako eskubide eta betebehar hauek onartzen dituela ulertuko da:

2.1.– Prestatzen ari diren ikertzaileen eskubideak: ikertzaile horien eskubide dira EPIFeko 5. artikuluan ezartzen direnak.

EPIFeko 5. artikuluko d) idatz-zatiari dagokionez, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak baimendu eta finantzatu ahal izango ditu prestatzen ari diren ikertzaileen egonaldi laburrak beren ezarpen-zentroa ez den beste zentro batzuetan. Horretarako, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren urteroko Agindua hartuko da kontuan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak finantzatutako Ikertzaileen Prestakuntzarako Programako laguntzen ezarpen-zentroak

a) Copia compulsada del título que acredite el doctorado, junto con la calificación obtenida, o en su defecto, el justificante de pago de los derechos del título.

b) En el supuesto que los datos bancarios que obren en poder de la Dirección de Política Científica hubieran sufrido alguna variación, ficha de alta de datos del tercero interesado, firmada por la persona solicitante y sellada por la entidad bancaria correspondiente.

3.– La concesión de la ayuda prevista en este artículo se efectuará mediante Resolución del Viceconsejero de Universidades e Investigación.

4.– La Resolución se notificará individualmente a las personas interesadas en el plazo máximo de seis meses a partir del día siguiente al de recepción de la solicitud de ayuda. Las solicitudes se podrán entender estimadas por silencio, si en el plazo señalado no se produce la notificación de la Resolución. Contra dicha Resolución podrán las personas interesadas interponer recurso de alzada ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación.

5.– A fin de dar cumplimiento al principio de publicidad, y sin perjuicio de la notificación expresa e individualizada de las Resoluciones de concesión, en el segundo semestre de 2010, mediante Resolución del Viceconsejero de Universidades e Investigación, se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la relación de personas investigadoras que hayan resultado beneficiarias de la ayuda adicional prevista en este artículo, con expresión de las cuantía percibida.

***Artículo 29***.– Derechos y obligaciones de las personas beneficiarias.

1.– La persona beneficiaria de las ayudas reguladas en este Capítulo dispondrá de un plazo de 15 días naturales a partir del día siguiente a la notificación o publicación en el Boletín Oficial del País Vasco de la Resolución de esta convocatoria para renunciar expresamente y por escrito a la misma, de no hacerlo así se dará por aceptada.

2.– La aceptación de la ayuda por parte de las personas beneficiarias implicará el reconocimiento de los derechos y el cumplimiento de las obligaciones siguientes:

2.1.– Derechos del personal investigador en formación: son derechos de este personal los establecidos en el artículo 5 del EPIF.

En relación con el apartado d) del artículo 5 del EPIF, la Dirección de Política Científica podrá autorizar y financiar la realización de estancias cortas en centros distintos al de aplicación al personal investigador en formación, en los términos previstos en la correspondiente Orden anual de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan ayudas para estancias cortas en centros distintos al de aplicación de las becas del Programa de Formación de

ez diren zentroetan egonaldi laburrak egiteko deialdia egiten duena.

2.2.– Prestatzen ari diren ikertzaileen betebeharrak:

a) Jarraian adierazten diren egunetan sartzea ezarpen-zentroan:

– Prestatzen ari diren ikertzaileak, laguntzaren lehenengo 12 hilabeteak hasteko badaude, orokorrean, 2010ko urtarrilaren lehenengo hamabostaldian hasiko dira aplikazio-zentroan. Nolanahi ere, beka-aldia 2010ko urtarrilaren 1ean hasiko da, bai ekonomia-ondorioetarako bai Gizarte Segurantzan alta emateari dagokionez. Atal honetan finkatutako epea baino beranduago hasiz gero, itzuli egin beharko dira urtarrilaren 1etik benetan hasitako egunera bitarte kobratutako zenbatekoak. Ikertzailea 2010ko otsailaren 1a baino lehenago hasten ez bada, kendu egingo zaio Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpenaren bidez emandako laguntza, baldin eta Zientzia Politikarako Zuzendaritzari beranduago hasteko baimena eskatu, eta horrek eman ez badio.

Dagokion saileko zuzendariaren eta proiektuaren zuzendariaren idazki izenpetuaren bidez egiaztatu beharko da ikertzaileak hasi direla, eta idazkian hasiera-eguna zehaztuko da. Idazki hori Zientzia Politikarako Zuzendaritzara igorriko da 2010ko otsailaren 1a baino lehen.

– Prestatzen ari diren ikertzaileek, laguntzaren berritzea lortzen badute, egiaztatu egin beharko dute ezarpen-zentroan jarraitzen dutela, dagokien saileko zuzendariaren eta proiektuaren zuzendariaren idazki baten bidez. Idazki hori Zientzia Politikarako Zuzendaritzara igorriko da, berritzea hasi eta 10 eguneko epean. Gainera, prestatzen ari diren ikertzaileek, kontratua izenpetzen badute, edo daukatena luzatzen badute, kontratua eskuratzen dutenean, horren fotokopia igorriko diote Zientzia Politikarako Zuzendaritzari.

b) Ezarpen-zentroko arauak onartu eta betetzea, eta dagokion prestakuntza-programan eta, hala badagokio, ikerketa-proiektuaren lan-egitasmoan zehaztutako jarduerak gauzatzea, eta jarduera dedikazio esklusiboaz betetzea.

c) Laguntzaren ezarpen-zentroan egon beharko dute. Ikerketa-beharrak direla eta, ezarpen-zentrotik aldi baterako egingo diren irteerak, astebete baino gehiagorako edo atzerrira joateko, Zientzia Politikarako Zuzendaritzari jakinaraziko zaizkio, eta horrek onartu beharko du. Jakinarazpen hori irteera-eguna baino gutxienez hamar egun lehenago gauzatuko da, saileko zuzendariak, proiektuaren zuzendariak (halakorik badago) eta prestatzen ari den ikertzaileak sinatutako idazki arrazoitu baten bidez. Espainiara egingo diren astebeterako irteerak Zientzia Politikarako Zuzendaritzan jakinarazi beharko dituzte.

Personal Investigador financiadas por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

2.2.– Obligaciones del personal investigador en formación:

a) Incorporarse al centro de aplicación en las fechas que a continuación se indican:

– El Personal Investigador en Formación que comience sus primeros doce meses de ayuda se incorporará, con carácter general, a su centro de aplicación dentro de la primera quincena de enero del 2010. No obstante, el inicio de la fase de beca tanto a efectos económicos como de cómputo temporal y alta en la Seguridad Social será desde el 1 de enero de 2010. El retraso en la incorporación sobre el plazo establecido en este apartado supondrá la obligación de devolver los importes cobrados desde el 1 de enero hasta la fecha de incorporación real. Si la incorporación no se llevara a cabo antes del 1 de febrero de 2010, salvo en los casos que hubiera solicitado y obtenido autorización de la Dirección de Política Científica para retrasar su incorporación, se procederá a la retirada de la ayuda concedida mediante Resolución del Viceconsejero de Universidades e Investigación.

Todas las incorporaciones deberán acreditarse mediante escrito firmado por la persona que dirige el Departamento y la directora del Proyecto correspondiente con la fecha exacta de las mismas. Dicho escrito se remitirá a la Dirección de Política Científica antes del día 1 de febrero de 2010.

– El Personal Investigador en Formación que obtenga la renovación de la ayuda deberá acreditar su continuidad en el centro de aplicación mediante escrito de la persona que dirige el Departamento correspondiente y la directora del Proyecto. Dicho escrito se remitirá a la Dirección de Política Científica en el plazo de 10 días desde la fecha de inicio de la renovación. Además, el Personal Investigador en Formación que firme contrato o amplíe el que actualmente tenga deberá mandar copia del mismo a la Dirección de Política Científica una vez obre en su poder.

b) Aceptar y cumplir las normas propias del centro de aplicación, realizando las actividades previstas en su programa de formación y, en su caso, en el plan de trabajo del proyecto de investigación, y desempeñar su actividad en régimen de dedicación exclusiva.

c) Permanecer en el centro de aplicación de la ayuda. Cualquier salida temporal por necesidades de investigación del centro de aplicación, superior a una semana o con destino en el extranjero, deberá ser notificada y autorizada por la Dirección de Política Científica. Dicha autorización se solicitará al menos con diez días de adelanto sobre la fecha prevista de salida mediante escrito razonado y firmado por las siguientes personas: la investigadora principal del Proyecto, la representante legal del Centro y la investigadora en formación. Las salidas temporales por necesidades de investigación inferiores a una semana que se realicen en España deberán ser notificadas a la Dirección de Política Científica.

d) Laguntzak dirauen artean, proiektuaren zuzendaria berbera izango da, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak aldatzeko baimen espresurik ematen ez badu behintzat. Proiektuaren zuzendaria aldatzeko baimena Zientzia Politikarako Zuzendaritzari eskatuko zaio idazki arrazoitu baten bidez, ikertzaile nagusiak, postua utziko duen zuzendariak eta prestatzen ari den ikertzaileak izenpetuta. Idazki horrekin batera sartzera doan pertsonaren onarpen-idazkia eta horren curriculum vitaea bidaliko dira.

e) Laguntzak irauten duen artean egindako ikerketa-lanen ondorioz sortutako artikulu, batzarretarako komunikazio eta bestelako argitalpen guztietan (doktorego-tesia barne) azalduko da Eusko Jaurlaritzak finantziazioa eman duela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailaren Ikertzaileen Prestakuntzarako Programako laguntza baten bidez.

f) Ikertzaileek, berritzea lortu dutenek izan ezik, laguntza-aldia amaitu eta hurrengo hilabetean, amaierako txosten bat aurkeztuko dute, 10 orrialdekoa gehienez; bertan, egindako jarduera akademiko eta lan guztiak adieraziko dira, bai eta horien emaitzak ere, eta ikertzaile nagusiak edo proiektuko zuzendariak ontzat emanda egon behar du. Lan horren emaitzak argitaratu egin badira, argitalpenen separatak edo fotokopiak bidaliko dira Zientzia Politikarako Zuzendaritzara. Patenterik sortu bada, horiek ere agirietan jasoko dira. Gainera, laguntzaren onuradun izan den prestatzen ari den ikertzailearen Curriculum Vitae eguneratua ere igorriko da. Halaber, doktore-maila lortutakoan edo doktorego-tesia defendatutakoan, horren berri emango zaio Zientzia Politikarako Zuzendaritzari, doktore-graduaren aktaren edo hori egiaztatzen duen beste edozein agiri ofizialen fotokopia bidaliz.

g) Laguntzari uko egiten bazaio, Zientzia Politikarako Zuzendaritzari jakinaraztea hori, beka-aldian zein kontratu-aldian zehar, 27. artikuluan zehaztutako baldintzen arabera.

h) Doktorego-titulua eskuratu dutela jakinaraztea Zientzia Politikarako Zuzendaritzari, titulua eskuratu eta gehienez 10 egun baliodunekoepean.

i) Beka-aldian, aldi baterako ezintasunekin, haurdunaldiko arriskuekin edo amatasunagatiko edo aitatasunagatiko atsedenekin erlazionatutako gertakaririk egongo balitz, Zientzia Politikarako Zuzendaritzari jakinaraztea. Zientzia Politikarako Zuzendaritzari jakinarazteko, egoera egiaztatzen duten ziurtagiriak igorriko zaizkio honako epe hauetan:

– Hiru egun, aldi baterako ezintasunezko bajako parte medikoaren eta baja berresteko partearen luzatzedatatik hasita.

– Egun bat, altako parte medikoaren luzatze-datatik hasita.

d) Mantener la misma persona que dirija el Proyecto durante el disfrute de la ayuda, salvo autorización expresa de la Dirección de Política Científica. La autorización de cambio se solicitará a la Dirección de Política Científica mediante escrito razonado firmado por el personal investigador principal, la persona saliente y el personal investigador en formación que se enviará junto con el escrito de aceptación de la persona entrante y su currículum vitae.

e) Hacer constar la financiación del Gobierno Vasco, a través de una ayuda del Programa de Formación de Personal Investigador del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, en todos los artículos, comunicaciones a congresos y demás publicaciones a que dé origen el trabajo de investigación realizado durante el disfrute de la ayuda, incluida la tesis doctoral.

f) Presentar dentro del mes siguiente al de finalización del período de disfrute de la ayuda, excepto los que hayan conseguido la renovación, una memoria final, máximo 10 folios, que contenga la totalidad de las actividades académicas y trabajos realizados y sus resultados, avalado por el Visto Bueno de la persona investigadora principal o de la que dirija el Proyecto. Si los resultados del trabajo han sido objeto de publicaciones se remitirán separatas o copias de éstas a la Dirección de Política Científica. Igualmente se documentarán las patentes a que hubiera dado lugar. Además, se remitirá el Curriculum Vitae actualizado del personal investigador en formación que ha disfrutado la ayuda. Asimismo, una vez obtenido el título que acredite el doctorado o defendida la tesis doctoral, se informará a la Dirección de Política Científica de tal hecho enviando fotocopia del acta de grado o cualquier otro documento oficial que lo acredite.

g) Comunicar a la Dirección de Política Científica la renuncia a la ayuda, tanto durante el periodo de beca como de contrato, en los términos y condiciones previstos en el artículo 27.

h) Comunicar a la Dirección de Política Científica la obtención del título que acredite el doctorado, en el plazo máximo de 10 días hábiles desde la fecha de obtención.

i) Comunicar a la Dirección de Política Científica, durante el periodo de beca, cualquier incidencia relativa a situaciones determinantes de incapacidad temporal, riesgo durante el embarazo y descanso por maternidad y paternidad. Estas incidencias se comunicarán a la Dirección de Política Científica, enviando la documentación acreditativa de la situación, en los siguientes plazos:

– Tres días contados a partir de la fecha de la expedición del parte médico de baja de incapacidad temporal y del de confirmación de la baja.

– Un día desde la expedición del parte médico de alta.

– Aste bat, amatasun-txostenaren luzatze-datatik hasita.

Gainera, posta elektroniko bidez jakinarazi beharko da aurretik esandako agiriak igorri direla esandako epeetan, honako helbide honetara zuzenduz: huisiesp@ej-gv.es.

j) Prestatzen ari diren ikertzaileek ikertzeko gaitasuna lortu beharko dute beka-aldian zehar, DEA edo, Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura egokitutako irakaskuntzen egitura berriarekin bat etorriz, horren ordezko administrazio-agiria eskuratuz.

k) Hemen jasotzen ez diren eta EPIFeko 6. artikuluan jasotzen direnak.

3.– Prestatzen ari diren ikertzaileen ezarpen-zentroaren betebeharrak.

3.1.– Prestatzen ari diren ikertzaileekin kontratu-egoeran ezartzen den lan-harremanetik sor daitezkeen betebeharren kaltetan izan gabe, honako hauek izango dira prestatzen ari diren ikertzaileen ezarpen-zentroaren betebehar orokorrak:

a) Prestatzen ari den ikertzaileari behar duen laguntza ematea, eta bere jarduera ongi gauzatzeko behar dituen bitarteko, tresna edo ekipoak erabiltzeko aukera ematea.

b) Tesiaren tutorea edo zuzendaria izendatzea, eta, hala badagokio, baita zuzendarikidea ere, doktorego-titulua izango dutenak. Horiek arduratuko dira, orokorrean, prestatzen ari diren ikertzaileen ikasketa- eta ikerketa-jardueren koordinazioaz eta aholkularitzaz, eta, konkretuki, emandako laguntzaren xedea zenbateraino betetzen den neurtzeaz. Gainera, urtero, eta 26. artikuluko 4.1. ataleko c) idatz-zatian xedatutakoari jarraiki, prestatzen ari den ikertzailearen jarduera akademikoei eta/edo ikerketa-jarduerei, errendimenduari eta, hala badagokio, hurrengo ikasturterako aukerei buruzko isilpeko txostena egingo du, eta laguntza berritzeko eskaerari erantsiko zaio.

c) Prestatzen ari den ikertzailea trebatzeko programa modu egokian gauzatzen dela bermatuko du, eta doktoregaiari ezingo zaio bere ikerketaren garapenarekin edo horretarako behar den prestakuntza bereziarekin zerikusirik ez duen bestelako jarduerarik agindu denbora horretan.

d) Prestatzen ari den ikertzaileari hori ikertzen ari den ezarpen-zentroko sailetan, alorretan edo ataletan integratzeko aukera ematea.

e) Zientzia Politikarako Zuzendaritzari laguntza-emakidaren hasierako egoeraren uko-egiteen, eteteen eta aldaketen berri ematea, bai eta kontratu-aldian prestatzen ari diren ikertzaileentzako laguntzaren xedea modu arruntean betetzea eragoz dezaketen gainerako gorabeheren berri ere, gertatzen diren egunetik hasi eta gehienez 10 egun baliodun eko epean.

– Una semana desde la expedición del informe de maternidad.

Además, del envío de la documentación anterior en las fechas indicadas se deberá informar mediante correo electrónico a la dirección huisiesp@ej-gv.es.

j) El personal investigador en formación deberá alcanzar la suficiencia investigadora durante el periodo de beca mediante la obtención del DEA o documento administrativo que la sustituya, de acuerdo con la nueva estructura de enseñanzas adaptada al Espacio Europeo de Enseñanza Superior Superior.

k) Las no contempladas aquí y recogidas en el artículo 6 del EPIF.

3.– Obligaciones del centro de aplicación del personal investigador en formación.

3.1.– Son obligaciones generales del centro de aplicación del personal investigador, sin perjuicio de las derivadas de la relación laboral que se establezca con el personal investigador en formación en situación de contrato, las siguientes:

a) Proporcionar al personal investigador en formación el apoyo necesario y facilitarle la utilización de los medios, instrumentos o equipos que resulten precisos para el normal desarrollo de su actividad.

b) Designar una persona que dirija el Proyecto y, en su caso, Codirectora, con título que acredite el doctorado, con la responsabilidad general de coordinar y orientar, tanto la actividad académica como investigadora del personal investigador en formación, y con la particular, de hacer el seguimiento del grado de cumplimiento del objeto de la ayuda concedida. Además, anualmente, y de acuerdo a lo dispuesto en el apartado 4.1.c) del artículo 26, elaborará un informe confidencial, sobre las actividades de la persona investigadora en formación y su rendimiento y, en su caso, perspectivas de cara al próximo año, que acompañará a la solicitud de renovación de la ayuda.

c) Velar por el desarrollo adecuado del programa de formación del personal investigador en formación, sin que pueda exigírsele la realización de cualquier otra actividad que no esté relacionada con el desarrollo de su investigación o de la formación específica requerida para ésta durante su transcurso.

d) Permitir la integración del personal investigador en formación en los departamentos, áreas o secciones del centro de aplicación en los que lleve a cabo la investigación.

e) Comunicar a la Dirección de Política Científica las renuncias, interrupciones o modificaciones de la situación inicial de concesión de la ayuda, así como del resto de incidencias que puedan alterar el normal cumplimiento del objeto de la misma para el personal investigador en formación en el periodo de contrato, en el plazo máximo de 10 días hábiles desde la fecha en que se produzcan.

f) Kontratu-aldian zehar, prestatzen ari diren ikertzaileek doktorego-titulua eskuratu dutela jakinaraztea Zientzia Politikarako Zuzendaritzari, titulua eskuratu eta gehienez 10 egun baliodunеko epean.

g) Praktikaldiko kontratuak formalizatzea EPIFen ezarritako baldintzak betetzen dituzten prestatzen ari diren ikertzaileekin, edo, dagokionean, lehendik egindako praktikaldiko kontratuak luzatzea, 26. artikuluan ezarritako berritze-prozedura ebatzitakoan.

h) Ezarpen-zentroaren eta prestatzen ari diren ikertzaileen arteko kontratuetan, eta laguntza-programa honen babesean egindako ikerketak direla eta sor daitezkeen argitalpen eta bestelako lanetan, kontratua Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailak finantzatu duela aipatu beharko da.

3.2.– Ezarpen-zentroak lan-kontratua egin beharko die EPIFen horretarako ezarritako baldintzak betetzen dituzten prestatzen ari diren ikertzaileei, indarreko lan-legeriarekin eta 26. artikuluan ezarritako berritze-prozedurari amaiera ematen dion Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpenean adierazten den iraupenekin, ordainsariekin eta gainerako betekizunekin bat etorriz.

3.3.– Ezarpen-zentroak Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren laguntzen eta diru-laguntzen araubideari buruzkoa deneko, VI. tituluan xedatutakoa bete beharko du.

4.– Edonola ere, diru-zenbatekoak jasotzeko eta laguntza berritzeko, derrigorrezko baldintza izango da ikertzaileek eta ezarpen-zentroak beren betebeharrak betetzea. Betebehar horiek ez badira betetzen, laguntza errebokatzeko prozedura instruitu ahal izango da eta, behar izanez gero, laguntza itzuli behar izango da.

***30. artikulua***.– Bateraezintasunen erregimena.

